

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Ekainak 9 26 zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Amayan antzerki ugari ikusteko aukera izan dugu urtean zehar

Kultur ekitaldien antolatzaileen atzetik

Arrasatearrok kultur ekitaldi desberdinetara joateko aukera izaten dugu urtean zehar. Ekitaldi hauek antolatzeko ardura erakunde eta elkarte desberdin ugariaren esku egoten da. Azken urte honetan Udaleko Kultura Batzordea kultur ekintzak antolatzen hasi ondoren, kultur ekitaldi hauek gehitu egin dira.

Bestalde, Ekainean beste edozein hilabetetan baino kultur ekitaldi gehiagoz disfrutatzeko aukera izango dugu. Hilero izaten ditugunez gain, San Juan festek emango diote amaiera hilabeteari.

(14. or.)

ORAIN ETA HEMEN

— Aste honetatik aurrera aldizkaria pottoloago aurkituko duzu. Lau orrialde gehiago sartu ditugu, eta Orain eta Hemen saila pixkat aberastea izan da gure helburuetariko bat. Horra hor, “Prentsaren begia” eta “Usteak uste” sailtxo berriak. Datoren astetik aurrera kolaborazio berri bat ere aurkituko duzu.

(9. or.)

— Epeleko zabortegia aztergai

(11. or.)

ELKARRIZKETA

Jone Astigarraga

“Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentru”ko arduradunarekin solasean.

(17. or.)

PODIUMA

Julio Gallego

Judoa, gehienontzat, kirol nahiko ezezeguna da. Larunbateko txapelketa dela eta, gure orrialdeetara ekarri dugu.

(19. or.)

FOTOZAHAR SARIKETA

Egin dugu, jendaurrean, VIGURITTE telebistaren bigarren zozketa; hile honetako sariduna: Felisa Gallastegi.

**ABERTZALE
AURRERAKOIEI
ZURE BOTOA**



BEHARREZKO TELEFONOAK

Erlitxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorria	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaiio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	798777

OSTIRALA 9

— Zinea: Alai: "El vuelo de la paloma"

Novedades (Bergara): "Conexión Tequila" 10,30etan.

— Mendi astea: Amayan, 10,30etan, "Azpeitiako espedizioa Annapumara".

— Goardiako farmazia:
A. Ruiz, Maalako Errabala.

LARUNBATA 10

— Zinea: Alai: "Los gemelos golpean dos veces".

Novedades: "El regreso de los muertos vivos" 5, 7,30, 10,30.

— Haur antzerkia:
Amayan, 6etan, "Xilipurdi"ren "Xilipurdita".

— Euskararen eguna Aretxabaletan:
-12,30etan: Kantuz kantu, sancheski.

-6etan: txiste lehiaketa, Kike Amunarriz-en partaidetzarekin.

-7,30etan: globo jaurkiketa.

-9,30etan: afaria.

— Alternatibaren eguna:

-1etan: txikiteo herrikoia, trikitiba.

-2,30etan: bazkari herrikoia Monterronen.

-7etan: Sebero Altuben haur jolasak.

- 10,30etan: mitina Monterronen: Trikitixa, Pantxoa eta Peio; X. Zubizarreta, Patxi Zabaleta eta

Maitane Intxaurreaga. Ondoren, Rocka: Heriotza eta DDDP.

— Goardiako farmazia:
A. M. Morales, San Andres.

IGANDEA 11

— Zinea: Alai: "Los gemelos golpean dos veces".

Novedades: "Conexión tequila" 5, 7,30, 10,15.

— Mountain-bikeko ibilaldia: irteera 8,30etan Portaloitik.

— Goardiako farmazia:
Torre, Ferrerías.

ASTELEHENA 12

— Zinea: Alai: "Los gemelos golpean dos veces".

Novedades: "Conexión Tequila", 5, 7,30, 10,15.

— Goardiako farmazia:
S. Español, Iturriotz.

ASTEARTEA 13

— Zinea: Alai: "Los gemelos ..."

— Hitzaldi-mahaingurua: Amayan, 7etan. Nilo piraguaz.

— Goardiako farmazia:
Corcuera, Elcano.

ASTEAZKENA 14

— Goardiako farmazia:
Irizar, Erguin.

OSTEGUNA 15

— Zinea: Amayan, 8,30etan, "Cobra verde" (Werner Herzog).

— Goardiako farmazia:
Amezua, Santamaina.

IKASTAROAK

— Sexualitatea: 17 - 24 urte bitarteko gazteentzat, Gizarte eta Famili-Heziketarako Zentruan. Ekainaren 7,14 eta 21ean, 6etan.

Dohain.

— Moda Diseinua: INEMen.

— Ordenadore bidezko diseinua: Oñatiko INEMen.

ERAKUSKETAK

— Kartelak: San Juan 89 kartel lehiaketako kartelak.
Ekainaren 12 - 18.

— Carmen Ramirez Baigorri: oleoak, Gatzagako Kultur Aretuan, Ekainaren 11 arte.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatx Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.700 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Kazetaritzatik katekesisera

Kazetaritza irakurle goseti eta amorratuarekin harremanetan egoteko biderik zuzenetakoa dugu. Kazetariak badakite euren lumetan —aurreratuenetakoeak MacIntoshak darabiltzate— komunikazioaren giltza dutena. Eta, beraz, askok eta askok euren ofizioak irakurle goa katekizatzeko desbideratzen dituzte, botere majikoaren egarriz ari direlarik.

Ez dugu pentsatu behar edozeinek eta edozelan diskurtsoa bere helburura iristeraz dezakeenik, ahalegin guztiak egin arren, gehienetan kazetariaren arrakasta ez baitago bere eskuetan, mezua helerazteko aukeraturiko bitartekoaren nolakotasunetan baizik. Kazetari txar batek bere zirria sartu ahal izango du, laguntza egokia izanez gero, nahiz eta aurkezturiko produktua ezertarako balio ez duen.

Kazetaritza aipatzen dudanean ez naiz, noski, prentsa idatziaz bakarrik ari. Irratia eta telebista are arriskugarrigo bilaka daitezke, irakurtzeko gutxieneko esfortzua eskatzen den bitartean, beste horietan nahikoa baita entzungorra ez izatea. Bestalde, kontutan har ezin daitezkeela bitarteko baten eta besteen kazetariak eredu bana, izan ere gaur telebistan dihardutenak bihar beren artikuluak egunkarietan sina bait ditzakete.

Gogora lehenen datozkigun kazetarien zerrenda eskatuko balitzai-gu, gai izango al ginatete izenen ondoan aukeratua izatearen zioa ipintzeko? Baiezkotan, egizue frogarren, ziur asko bi kazetari mota agertuko dira: beren lanaren bidez irakurle goa "apaindu" nahi dutenak eta irakurle goaren bizkar euren almazena apaintzen ari direnak. Gaiztoenak azken horiek ditugu, titulu faltsu baten atzetik edozein astakeria eta arinkeria adierazteko gauza baitira.

Bada beste klasifikapen bat, aurreko bietatik ateratzen dena. Eta, hain zuzen ere, komunikabidearen neurri eta mailari dagokiona da aipatu klasifikapen hori eragiten duen faktorea. Bitartekoa zenbat eta zabalkuntza haundiagokoa izan hainbat eta almazen-apainleagoak azaltzen zaizkigu kazetariak. Hori, ene eritziz, horrela da eta kazetaritza bere ahalmena zorrotzen joan den neurrian, hainbat profesionalak ispilulu balitz bezala hartu dute irakurleen multzoa. Baina ispilua, zoritxarrez, ez da irakurle horien norabidea argitzeko erabiltzen, kazetariaren irudi egolatra irradiatzeko baizik. Eta horrek kalte besterik ez dakarkio informazioaren zuzentasunari.

Josemari Velez de Mendizabal

ASEGURUETARAKO MERKATAL DEPARTAMENTUAK

Deba Garaiko merkatal sarea handitzeko lanpostu batzuk bete behar ditu. Hautatuek Aseguruen hastapenari buruzko ikastaroa izango dute. Beka-sistema Interestatuek aurkeztu astelehenetik ostiralera, goizeko 10,30etatik 12,30etara.

Garibai kalea, 3, behegaina.



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

GIROA AROTZAK

Iturriotz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

NASA ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Zorionak, txofer on!

Orain hauteskunde garaian arazo traszendentalez eta hitz potoloz beteta gauden honetan, baliteke norbaitek pentsatzea garrantzia gutxiko txikikeria dela ondoko hau, baina eguneroko bizimodu erreala gauza txiki askoz betea dago.

Kontua da, nik zorionak eman nahi dizkiedala Arrasaten ondo gidatzen duten guztiei (eta besteak —eta bide batez, neure burua hobetzera animatu). Trafikoa izugarri elementu garrantzitsu bilakatu da bizimodu modernoan. Alde batetik, seguritatearen kontua dago (hildakoak, zaurituak... eta kalte materialak); eta nork bere buruaz nahi duena egin badezake ere, gure erruz beste inori inolako kalterik ez sortzea da **arau nagusia**. Baina badago beste alderdi bat: autoz edo motoz ibiltzerakoan, ingurukoenganako sentiberatasuna, ardura, begirunea eta gizalegea erakusten dira, eta hau oso garbi agertzen da geure maniobrak adierazteko argi keinukariak erabiltzen direnean; zebra bideetan oinezkoek pasatzen uztean; une batez bigarren lerroan geratu behar badugu, atzekoei pasoa ez eragoztean; aurrea hartu nahi digutenei horretan laguntzean; noizbait aparkatuta dagoen beste ibilgailuren bati ukituren bat eginez gero, geure telefonoa edo helbidea uztean... “Txikikeria” guzti hauei oso jaramon gutxi egiten diegulakoan nago, eta bolantea hartzen dugunean, munduaren jaun eta jabe bakarrak bagina bezala ibiltzen gara. Kontuz! Gidatzerakoan ere oso garbi ematen da aditzera zer-nolakoak diren pertsonak eta herriak!!!

I. M.

Euskara baietz desagertu Herri Irratian

Euskarak Donostiako Herri Irratian daraman bidea ikusirik apustu bat egiteko grinaz gaude.

Ezetz hemendik bost urtetara Donostiako Herri Irratian euskal saiorik egon. Apustua 1000, 500ni egingo

genuke, ez bait dugu interesik ikusten gure ama hizkuntza aurrera ateratzeko.


Orain dela urte bete, eta saioen aldaketa bide zela garbi ikusi zen, zein politika nagusitu behar zen aurrerantzean. Aurrenik, goizeko saioetan hasi zen hizkuntz ordezkatzea eta euskaldunen salaketak. “A mi que me cuentas” erantzuna izan zuen.

Gero, euskal kultura interesgarria ez dela nagusitu zen irratian plantintzan eta Karmeloren saioa ordezkatua izan zen, agian Iñaki de Mugikak zuzentzen duen sasikultur saioak askoz ere arrakasta gehiago izango du jendearen aldetik, bejondeiela!


Nahikoa COPE entzun dugu gaurdaino euskalduntzat geneukan irratian horretan eta aurrerantzean Herri Irratia (herriko oihartzunean gidatu beharko litzatekena) bideratuko den itxaropenaz gure agurrik beroen Arrasate Presseko irakurle orori.

Beinke

Salaketa Txaloketa Taldea



**Zer deritzozu herrian daukagun kultur programazioari?
Nahikoa al da?**



Carlos Sarabia

Badirudi azken bolada honetan kultur programazioa aberasten ari dela, eta antolatzen dira, astero, ekitaldi batzuk; horrela jarrai dezala. Dena dela, oraindik hobetu egin daiteke.



**Agurtzane Garai
(dendaria)**

Pobre samarra. Ez dakit gauza haundirik egiten den edota egiten denaz informazio eskasa jasotzen dugun, baina dudan inpresioa hori da.




**Maite Uribarreniturrieta
(etxeoandrea)**

Gauza gutxi egiten dela uste dut. Erakusketak eta horrelakoak jartzen dituztenean joaten naiz.




**Iginio Uzarraga
(Jubilatua)**

Antolatzen diren antzerkiak eta horrelakoak ondo ikusten ditut, kultura zenbat eta gehiago zabaldu hobeto.



**HEMEN,
MADRILEN
ETA EUROPAN,
EGINTZEN
INDARRA DA
BALIO DUENA**



Aramaio eta Deba errekek duela urte gutxi arte osun iturri eta landare eta faunalekua zirela ahaztu dute. Duela gutxi (berria ez bada ere) Ulgor, Lana, Arrasate eta Amat kooperatibek eta Santa Agedako Ospitale Psikiatrikoak, gure erreketara isurkin kutsagarriak bota dituzte. Horren ondorioz, "Confederación Hidrográfica"n salatu dituzte.

(Kooperatibisten Taldeak eta Eki talde ekologistak "El Correo Español" egunkarian)

"Jon Sarasua: Aspaldiko urteetan izan den finalista-rik gazteena den honek, oraindik gazteago txapelketa askotan, gehiegitan, hartu zuen parte. Baina juradu baten aurrean kantatzen gehienek baino ohitura gehiago du eta, gorabehera handirik gabeko bertsolaria denez, ez litzateke harrigarria berriro zortzi onenen artean sartzea".

(Xabier Euskitze kazetariak "Eguna" astekarian)

"Duela zenbait urte Amat enpresari Fagor Taldean, bere unerik onenean ez zegoenean, sartzeko proposatu zitzaion; Amatek, ostera ez sartzea erabaki zuen, bazkideen epe laburrerako interesak gehiago kontutan hartuz. (...) Ordutik hona, bi hauen bilakaera ezberdina izan da. Fagorrek gora egin duen bitartean, Amatek bestelako bidea jarraitu du, oso ekonomi egoera txarrera helduz.


Berau dela eta, 1986an Amatek Fagor Taldean sartu nahi izango du. 1989an eta Fagor Taldean, Amat sartzeko jarriko diren baldintzak aztertzen ari dira.

(Lorea Kazetariak "Egin" egunkarian)

"Mondragoien (kooperatibekin) hartu daben moduan, geuk hartu behar dogu erresponsabilidadadia, geuretako eifi biharra eta geuretako irabazi, horretarako hoixe preparaziflori bihar dogu eta sakrifizio hori ze... kooperatibak eitzeko martxan ipintzeko dirua jarri bihar dabe soziuek. Gaur pasatzen dana da kapital gehixao bihar dala. (...) Denbora baten euki genduan Eibarren -El Piloto- baiña, gaur, Elgoibar batek, Mondrago batek, Renterixa batek emotezkuez lau buelta".

(Candido Eguren eibartarrak "...eta kitto" hilabetekarian)

Besaide elkarteak, azken hilabeteetan ekintza ugari antolatu ditu, zer dela eta ematen da ekintza gehitze hau?



Beno, Besaidek bere Batzordea aldatu egin zuen duela hilabete batzuk, eta gehien bat handik aurrera eman da ekintza gehitzea. Batzordean jende berria sartu gara, gazteak eta lan egiteko gogoarekin. Lehengo Batzordea nahiko estankatuta zegoela esan daiteke, urte asko zeramatzaten Besaiden eta hileroko irteeraz gain, ez zuten beste ezer egiten. Eurak euren burua, nahiko mugatzen zuten. Esaterako irteeraren batera joateko, izena Batzordeko norbaiti eman behar zitzaion. Horrek lehenagotik Batzordekoak ezagutzea suposatzen zuen. Azkenean, betikook joaten ginen irteera horietara. Guk ekintza zabalak egiteko asmoa dugu eta neurri batean lortu dugula uste dut, gero eta jende gehiago etortzen bait da irteeretara, etortzea espero ez zenuen jendea askotan. Bestalde, hileroko irteeraz gain, ikastaro eta ekintza desberdinak antolatu ditugu, horrela Maiatzean hiru irteera antolatu ditugu, Ekainean Mendiko astea, eta Uztailean bi ikastaro. Mendiko astean, pelikula emanaldi batzuk, hitzaldiak eta Mountain Bike ibilaldia daude antolatuta. Beharbada, ez da gauza handirik izango, baina behintzat zerbait egiten hasi gara. Gainera ez dut uste mendizalea izan behar denik parte hartzeko, natura atsegin izatearekin nahiko da.

Betiko irteeretara ez mugatzean eman du Besaidek aldaketa. Jende gehiago etortzen hastean, lanean hasi garen jendea ezaguna izateak ere bere eragina duela uste dut.

Marijo Ijurra

Besaide Elkarteak Batzordekidea

LODITASUNA eta ZELULITISA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik, aprobeitza zaituz gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE




**Almacén del Mueble
Mondragón**
Prezio paregabeak
Zatozte

Gipuzkoa Etorbidea. 6 Lehena behea Legarre

**Arrasate
Press**
zure astekaria

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

Abenturari buruzko hitzaldi-zikloa


Ekainak 13, Asteartea: **"Nilo piraguaz"**
Nairobiarrak

Ekainak 20, Asteartea: **"Marruecos bizikletaz"**
Xabier Guinea

Ekainak 27, Asteartea: **"650 km. eskia Groenlandia zeharkatzeko"**.
Tolosako "Nairobiarrak" elkartearen eskutik

Tokia: **Monterron** (hitzaldi-aretoan)

Ordua: **arratsaldeko 7etan**



Antzerkia

Ekainak 16: **"Aquellos polvos"**
Panta-Rhei-Oxydo taldea

Zaldibarren. (Eguraldi txarra
gingo balu, kiroldegian)

Gaueko 10etan.

Triptiko informatzailea (Ekainean Arrasaten antolatuturik dauden ikastaroak, ekintzak etab.)

prentsaren begia

OSTIRALAK, 2

- Correo:** "Zaldibar berpiztu nahian antzerkia Arrasaten"
Deia: "Kross herrikoiak igandean 11. edizioa beteko du"
DV: "Eusko Jaurlaritza Altamiran promozio publikoko etxeak eraikitzen"
Egin: "EKIk Tuterarako martxan parte hartzeko eskatu"

LARUNBATA, 3

- Correo:** "Arrasateko Udalak bere gestiorako informatika-programa burutu nahi aurten"
Deia: "Gaur, jubilatuen eguneko festa"
DV: "Gaur, jubilatuen egunean, 1603 bazkalkide batu daiteke"
Egin: "1600 jubilatutako omenduko Arrasaten"

IGANDEA, 4

- Correo:** "Arrasateko 42 gazterentzako aldi baterako enplegu-eskaintza emango Udalak"
DV: "Eguraldi txarragatik 219 jubilatutako etxean geratu behar"
Egin: "Roneo-ko LAB eta UGTk mobilizazio berriak planteatu"

ASTELEHENA, 5

- Correo:** "Gaur arratsaldean Iturbiden Zaharren Egunari hasiera emango zaio"

ASTEARTEA, 6

- Correo:** "Arrasateko 12 gaztek (neskak) uda honetan auzolandegietan parte hartuko"
Deia: "Inoiz baino jende gehiago jubilatuen egunean"
DV: "Mirari Armendia, Idoia Mendikute eta Inma Flores, Europako aletazko Igeriketarako hautatuak"
Egin: "Datozen San Juan jaiek 11.000.000 pta.ko aurrekontua izango"

ASTEAZKENA, 7

- Correo:** "Arrasateko hirigune zaharreko errehabilitazio-plana prest egon daiteke datorren hilerako"
Deia: "Union Cerrajera-ko jubilatuentzat hitzaldiak"
DV: "Ikerrek atzo Ipuruan eta gaur arratsaldean Urbinak Zubietan entrenatuko"
Egin: "Roneoko langileek ez dute mobilizazio berriak burutuko"

OSTEGUNA, 8

- Correo:** "Arrasateko S. Juan jaiak programaioak iaz hasitako aldeketa eta berriztapena indartu nahi"
Deia: "Jubilatuei zuzendutako zikloaren azken hitzaldia"
DV: "11 milioiko aurrekontuarekin S. Juanetako programazioa"
Egin: "AED elkarteak jadanik antolatu ditu "Arrasate 89" lehiaketak"

Usteak uste...

"Zaharren astea" dugu hau Arrasaten. UCEMeko jubilatuentzat hitzaldiak antolatu dira. Egin berri dute txangoren bat edo beste. Joan den larunbatean omenaldia egin zitzaizen Musakolako kiroldegian. Kronikek diotenez, 308 sari zozkatu ziren 1.384 omenduen artean. Sexu bietako zaharrenei oroigarri bereziak eman zitzaizkien.

Jubilatuen populazioa hazten ari zaigu urterik urte, edo bestela esanda, zahartzen ari gara nabarmenki, eta susmoa dut fenomeno berri honen aurrean inertzia edo ez ote gabiltzan.

Dekretoz, hirurogeitabost urteko pertsonak, nahi eta nahi ez, baztertu egiten ditugu produkzio mundutik. Egia da asko eta asko jubilatuzko desiatzen egoten direla, uste baino gehiago zimeldu egiten dela jubilatutako bezain agudo eta geroz eta gehiago direla jubilatutakoan lanean gustora segituko luketen arren, ezin dutenak.

Orain arte geroz eta zabalagoa den fenomeno honen aurrean izan dugun erantzuna nahiko topikoa izan da. Adin horretatik aurrera besterik gabe irauten lagunduko dien azpiegitura sortu eta beste ezer gutxi. Urtean behin edo birritan omenalditxoak egin, eskuzarta amoltsuak bizkarrean eman, "bai guapa zaudela oraindik, firmatuko nuke zure adinean zu bezala egotea", esan eta aurrera.

Beste gizarte aurreratuetan gertatzen den eran, eta hemen belaunaldi berriak ari direla jubilatzen kontutan hartuz, Mondragoe eta inguruetak jubilatuek beren ahalmen ekonomiko eta bestelakoen kontzientzia hartu behariko lukete eta paper eraginkorragoa jokatzeko hasi gure artean. Kooperatiben sorkuntzaren abenturan parte hartu zuten aintzindariak hor izan lezakete hurrengo erronka.

Joxe Aranzabal

BATZOKIA

jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41

Arrasate



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

Indarrezko Botoa



**PSOEkideak
Europaz mintzo**

PSOERI tokatu zaio txanda oraingo honetan. José Luis Lana, bertako zinegotzia, Ricardo Gonzalez Orús-ek, Industriako sailburua, eta Jesús Egiguren, Legebiltzarreko lehendakaria "Casa del Pueblo"n izan ziren.

Lanak Arrasaten PSOEn kanpaina berandu hasi dela adierazi zuen. Hala ere, datorren egunetarako Europako herrialde guztietako banderekin kotxe karabana eta beste ekintza batzuk iragarri zituen.

Gonzalez Orús-ek PSOE oinarri ideologiko sakona duen alderdia dela eta Euskadin ideologiaz mintzatzeko ohiturarik ez dagoela esan



zuen. Alderdi Sozialistak Europa kontserbadore honetan kontraboterearena egin behar du. Egiguren-ek, bestalde, kanpaina honek hartu duen

izaeraz harrিতuta agertu zen; bere us-tez, Europaz hitz egin beharra dago, Pakearen aldeko batasuna ordezkatzeko duen Europaz. Espainiaren sarrera European Moran Kanpo Arazoetarako ministraria zenean lortu zen. Egiguren-en esanetan, Espainia gero eta gehiago hartzen dute kontutan


European. Azkenik, datorren legealdiak izango duen garrantzia azpimarratu zuen, honetan merkatuaren batasuna ezarriko da eta.



J. M. Pagoaga



Esther Larrañaga



Koldo Martínez

Arrasateko eurohautagaiak. Ia seguri mondragoetarrik ez dela aukeratua izango 15eko hauteskunderetan Estrasburgoko Legebiltzarra joateko. Hala ere, badugu geure ordezkariak apala zenbait alderdi-zen zerrendetan. Jose Manuel Pagoaga, Peixoto, HBko zerrendaren 4. lekuan doa. Esther Larrañaga 41.a da EAren zerrendan eta Koldo Martínez, orain Irufean bizi den osagilea, 51.a da EErean. Besterik ez bada, zorterik onena hiruroi!

■ **Hirigintz diziplina**

Horrela ezagutzen da edozein enpresak edo partikularrek Ingurugiroa edo Hirigintzaren kontra kalte egiten dutenean, Udalaren aldetik, abisatu edo zigortzeko egiten diren aktuazioak.

Horrela, Gas Gisa enpresaren obrak geldiarazi ditu. Gas Gisa gas naturala ezartzeko obrak egiten ari zen udal baimenik gabe. Escatu S.A.ri, hondakin industrial gehiago aire zabalean ez erretzeko exigitzen dio, bestela espediente zigortzailea ezarriko diola eta. Aramaio erreka-kutxadurari dagokionez, "Confederación Hidroeléctrica" ren aurrean, Amat enpresak isurketa kutsagarriak egiten dituela salatzea; eta Hormigones Aizko enpresari espediente zigortzailea zabaltzea.

Zure botoa

HB

EUSKADI ren

ALTERNATIBA

MITINA - Monterron Park.

- Patxi Zabaleta
- Maitane Intxaurreaga
- Xabier Zubizarreta

EKAINAK 10

Gaueko 10,30etan

◦ Pantxo-Peio eta Rock Jaialdia

KABINETE MEDIKOA

Medikuntza Digestibidea

Endoskopia

Ekografia

Analisiak


Ferrerias, 1.

Tfnoa: 79 15 08

Europa gorri, berde eta lila

Datorren hauteskondeez mintzo ziren Idoiaga eta Fagoaga, EMKk eta LKIk antolatutako hitzaldian. Idoiagak kanpainan erabiltzen ari diren sloganak aztertu zituen: horrela, "Europaren indarra", multinazionaleen indarra baino ez da; "herrien Europa", ezinezkoa Elkarte Ekonomikoan barruan eta, Bandresi parafraseatuz, European Len Pen, kolonialismoa, arrazismoa eta sarraskiko espetxetarako (Alemanian, kasu) lekuri badagoela adierazi zuen. Guk nahi dugun Europa gorri, berde eta lila izan behar du.

Fagoagak EMKk eta LKIk zerga-



Fagoaga eta V. Idoiaga

tik eskatzen duten botua HBrako azaldu zuen. Nahiz eta hauteskundeak politiko profesionalen arteko negozioa besteri ez izan, erasoak jasaten ari denean, botuak HBarekiko elkartasuna adierazteko balio daiteke. HBk, akats dextente izan arren, Estatuaren kontrako borrokan fokurik nagusia dugula esan zuen.

■ AEDren lehiaketak

Urtero bezala, AED elkartearen lehiaketen oinarriak plazaratu dira, dagoeneko. Ipuina, Poesia, Bertso-Paperak, Komikia, Argazkia, Itzulpena, eta Bideo-lehiaketek osatzen dute deialdia. "III. Itzulpen laburren sariketa"ren gaia aurten Soziolinguistika da. Lanak Azaroaren leian baino lehenago aurkeztu behar dira, eta urtero bezala, AEDkoek lan saridunekin liburua gertatuko dute. Iazko lanekin prestatutako libur ederra hilaren 16an, ostiralean, aurkeztuko da Monterronen.

■ Pobretasunaren aurkako plana

Egoera larrian daudenentzako laguntza planaren barruan, beste sei eskari berri egin dira. Eskakizun hauek 86.000 pta.tik 457.000tara doaz, Gobernu-Batzordeak sei haue-tatik, bosti laguntza ematea erabaki duelarik.

Epeleko zabortegia aztergai

Epeleko ibarbide batean, Bergarako lurraldeetan, egingo bide den Eskualdeko zabortegi kontrolatua nolakoa izango den azaltzeko hitzaldi informatiboak izaten ari dira hainbat herritan. Asteazkenean German Berezibar Mankomunitateko gerentek, proiektuaren erredaktorea Evaristo Gomez-ek, F. Azpiri geologoak eta Aranzadi elkarteke Itigo Mendiolak mahiungurua eman zuten.

Eskualdean 31 kontrolatu gabeko zabortegi daude, eta gehiegikeria honi nolabait kontra egiteko, Udal Elkarteak proiektu hau sortu du. Zabortegi kontrolatua izango da, eta bertan bakarrik hondakin industriak geldo (inerte) eta ez toxikoak (urtero 1.750 Tm. ematen dira) botako dira. Hondakin mota hauen adibideak obren kaskoteak eta moldeoko harea izan daitezke. Tokia aukeratzekotan bere kokagune geografikoa (kargatoki guztien erdian), eta ezaugarri geologikoak kontutan hartu ziren,

inoiz ahaztu gabe ingurugiroak izan dezakeen eragina. Zabortegiak 25 Hektarea, eta 3.500.000 Tm.ko kapazitatea izango du. Proiektuak 460 milioiko aurrekontua dauka, eta, lanak datorren urtean hastea espero da.

Mahainguruan bildutako publikoak gogoz hartu zuen parte deba-tean, gaiari buruzko ezagutza erakutsiz, gainera. Jendea ingurugiroaz kezkatua oso ikusten zen, proiektuari buruzko galdera ugari bota zuelarik.

VICTOR RUIZ MELGAR

Margolaria

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa

Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOBÁ


Auto-Eskola

Zarugalde, 46

Tfnoa: 79 29 93

79 14 01

ARRASATE



Mirian Garcia Arrasaten izan zen

Mendi astea


Astean zehar Besaidek antolatutako "Meni astea"ren barruan hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan dugu eta izango, aurrerantzean

ere, igande arte ez bait da bukatuko. Astelehenean eta asteazkenean hitzaldiak izan dira Abaroan: bata kirol medikuntzaz, Ramon Garatek emanda; eta besteak "Yosemitek Patagoniara" izeneko hitzaldi eta proiektzioa, Mirian Garcia eskaladore irufiarraren eskutik. Ostiralean, "Azpeitiko espedizioa Annapurna" izenburuko filmea izango dugu. Astea Mountain bikeko ibilaldiaz amaituko da igandean. Martxistek honako ibilbide hau beteko dute: Arrasate - Udala - Besaide - Izpizte - Etxaguen - San Kristobal - San Andrian - Untzilla - Arrasate.

Gainera, ekitaldi hauetan parte hartu duten guztien artean Arrasate Kirolak-ek eta Ola-Oste Kirolak-ek eskeinitako sariak zozketatuko dira.

Promozio publikoko etxebizitzak

Hasi dira, dagoeneko, Altamira eta J.L. Iñarra pasalekuan Eusko Jaurlaritzaren promozio publikoko etxebizitzaren obrak. Guztira, 27 etxebizitza dira; eta Udalak, Gizarte-Laguntzailearen bidez, kontrolatuko ditu etxeak adjudikatuko Jaurlaritzak ezarritako baldintzak. Dena dela, oraindik itxoin egin beharko da Jaurlaritzak eskaera-orriak bialdu arte. Udala berak hainbat etxebizitzaz jabetzeko, gero merke alokatzeko, eskubidea du.



Etxebizitzak, Altamira baserriaren ondoan

Etxebizitza hauek erosi nahi dituztenek galdetegia bete beharko dute. Honetan ekonomi eta famili egoera eta etxebizitzarik ez edukitzea puntuatuko dira.

Hiliek lanean

Iñaki Laskurian Osinaga, 29 urteko atxabaltarra hilik suertatu zen igande gauean, San Andreseko Fagor plantan lanean ari zela. Antza denez, burmuin isuriketa batez gertatu zen hilik.

Roneok grebarik ez

120 botu ezezko eta 81 baiezkorekin atzera bota da aste honen hasieran Langileen Batzarrean planteatutako greba mugagabea egiteko oportunitatea. Horrela bukatzen dira, oraingoz, behintzat, joan den hilean langileek hasitako mobilizazio, paro eta bi eguneko greba. Mobilizazio hauen arrazoia ELA eta Zuzendaritzaren artean hartutako aurrekordioak sortu duen desadostasunean datza. Roneoko Enpresa-Batzordea ELAko bost delegatuk, eta LAB eta UGTko bik osatzen dute.

Jaiotzak

Arregi Lopez *Oier*,
Maiatzaren 26ean.
Salaberri Lasa *Andrea*, 27an.
Ajuria Izquierdo *Gorka*, 28an.
Del Arco De la Riva *Erik*,
Ekainaren 1ean.
Lopez Martín *Alberto*, 2an.

Ezkontzak

Valentín Azkarraga & M^a Natividad Fernández,
Maiatzaren 27an, zibilez.
Ignacio Victoriano Pagaldai & M^a Begoña Agiriano,
Ekainaren 3an, zibilez.
José M^a Ganboa & M^a Mercedes Castillo,
Ekainaren 3an, elizaz.



comercial
SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

**DATU-BASEAK
OFIMATIKA
MANTENU-ZERBITZUA
*Ekipamendu eta programak
*Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR

Larunbatean

"Xilipurdika"


haur antzerki-saioa

Barakaldoko "Xilipurdi" antzerki taldeak larunbatean, 6etan, Ama-ya antzokian "Xilipurdita" obra antzestuko du. "Xilipurdita", jatorriz kafe-teatroko saioa da baina, orain-ego honetan, haurrentzako egokitu dute. Lan honetan mimo eta clown-teknikak tartekatzen dira.

"Xilipurdi", 1984ean sortuta, Javier Fernandez-ek eta Mariano Rodriguez-ek osatzen dute.

Cobra verde

Eta kultur progamazioarekin jarraituz, ostegunean "Cobra Verde" pelikula proiektatuko da. Werner Herzog-en zuzendaritzapean, Klaus Kinski bisionarioa dugu protagonis-



Klaus Kinski "Cobra Verde" filmean ta. "Fitzcarraldo"ren handitasuna atsegin bazitzaizun, ez gal "Cobra Verde". Esklabuen istorioa kontatzen digu.



Eskulanak. Hiru eta hamalau urte bitarteko S. Fko. Xabier Ikastolako eskolaur edo gazteen eskulan erakusketaz gozatzeko aukera izan

dugu joan den astean zehar, asteartetik ostiralera, Monterronen. Marrazkiak, kareta, marionetak, kriztalezko ontzi apainduak, etab. izan genituen ikusgai, multzo benetan ederra osatuz. Honetaz gain, umeek lanak nola egiten dituzten erakusten zuen audiobisualak osatzen zuen muntaia.

Erakusketari amaiera emateko, "Eskulanak eta arte-adierazpen" gaiarekin hitzaldia eman zuen José Angel de la Casa eskultore eta irakasleak.

San Juanak

Gobernu-Batzordearen onespena falta arren, San Juan jaietako programa ia eginda dago. Besteak beste, honako ekitaldi hauetaz gozatzeko aukera izango dugu:

Hilaren 15ean Eibarko Itzuliaren etaparen bukaera izango da, eta 16an, etaparen irteera. 17an, hainbat kirol ekitaldi, Haur Tanborrada eta Rock Jaialdia ("Tahures", "Potato" eta "La Polla"). 18an, Haurren Eguna. 23an, Salve eta Tanborrada. 24ean, San Juan egunean, koadrilen arteko txirrindulari lasterketa, Kontzertuak eta Herriko Rock taldeen emanaldia. 25ean, poteoa patinak eta gonekin. Jaiak 26an bukatuko dira. Azken hiru egunetan entzierroak, egunero dantzaldiak, hainbat kirol emanaldi eta beste ekitaldi ugari izango dira. Jaiak 11 milioiko aurrekontua dute.

Abentura

Gai honetaz Gazteria Zerbitzuak hitzaldi zikloa antolatu du. Datorren astean hasita, asteartero hitzaldiak izango dira. Hiru titulu erakargarri iragarri dira: Ekainaren 13an, "Nilo piraguaz", 20an "Maroko bizikletaz" eta 27an, "650 km. skiez Groenlandia zeharkatzeko".

Bestalde, nahiz eta lehenengoan porrota izan euriagatik, Zaldibarren beste antzerki-saio bat eskeintzeko asmoa dago, hilaren 16an izango da, eta antzestuko den obra, "Aquellos polvos".

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab. etan.
MANTENU-ZERBITZUA

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa BERGARA

Euroizarrak

★ Isilka-misilka dabiltzanak, ez Madrilen baina bai Mondragoe eta inguruan, PSOEkoak dira. Egiguren eta Orus ekarri zituzten, azken honen Gelma bisitatuko zuen bide batez, baina mitina baino gehiago hitzaldia izan zen, Casa del Pueblon emandako hitzaldia. Asteburu honetan plazaratutako inkesten emaitzak aldarazteko zerbait gehiago beharko dute.

★ Zeresan ugari ematen ari den kartela EMKren "supermerkatuarena" da. Batzuentzat oraindik kartel-gilerik orijinalenak eurek diren bitartean, beste zenbaitentzat, Rufino Iraola kasu, "nahiko serio eta langile izatetik batere graziaz gabeko irainetara jo dute. Muralik bikainenak kaleratuz txabakanerian lardatzeraino erori dira". Zenbat buru, hainbat aburu.

★ Urte batzuk direla, hain arrotz eta yankizat genituen gauzak, ia guztiz banerata ditugu honez gero. Hautagaiak kaleetan zehar propaganda banatzen eta eman nahi dion guztiari eskua luzatzen, ikusten, telebista kamaren aurrean, noski, eguneroko ogi bihurtu zaigu. Guk ere, hautagaiak deskribatzen, aldatu egin ditugu erizpideak: honi karisma falta zaio, harek badu karisma baina mihia gehiegitan ateratzen du berba egiterakoan, beste hura Profiden irribarraz agertzen zaigu gehiegitan, harako besteak gehiago ematen du Vatikanon inguruko predikaria eta azkar horren traje eta betarrurrekoek Loewen erositakoak dirudite. Nor hitz egiten du gaur egun hautagaien mezuaz?

T x a n d a k a

Ingurunearen azterketa, eskola eta haurra

"Aurtengo mania hezkuntzari buruz idaztea da" (Grimm baroia, 1763)


Badirudi une hau eskolaz hitz egiteko ez dela txarra: datorkigun erreforma, eskola publikoranzko bidea, irakaslearen ondoeza, ume kopuruaren beharrekada, eta abar luze batek, horretara bultzatzen gaituzte eta.

Artikulu honetan, eta berari jarraituko dioten beste batzuetan ere, gai konkretu bat aztertuko dugu: Ingurunearen ezagumendua.

Inguruneaz aritzen garenean, gizakien harreman eta ekintzak mugatu eta baldintzatzen dituzten faktore, fenomeno eta ekintzez ari garela esan nahi dugu; eta hori dena eskolan, eta bereziki umeengan zentratzeko eta oinarritzeko.

Gaur egun psikopedagogiak, umeak -bere ingurunearekin erlazionatuz- dakienetik ez dakienerantz abiatu behar duela esaten digu. Horretaz gain, gizartea une honetan dagokion hezkuntz sistemarekin pozik ez dagoela ere gauza nabaria da; are gehiago, gizarte horretan -handik eta hemendik- gero eta ahots gehiago ari dira jasotzen egungo eskolak ekoizten duen produktuaren, hots, zentzugabeko irakaskuntzaren, kontra orain eta gerorako benetako hezkuntza eskatzen duten bitartean.

Planteamendu honekin bat etorritz gero, berehala beste honetaz konturaturako gara: berau onartzeak eta asumitzeak aldaketa izugarria eskatzen diola gizarteari (eskolak eta bertan ematen diren prozesuak beste era batetara ulertuz...), eskolari (azpiegitura egokitu, ordu-tegiak moldatu, irakaslearen papera



Eugenio Astigarraga*

gaurkotu eta goraipatu...), eta gurasoei (eskolaren eginkizunean parte kritikoa eta aktiboa hartu), eta, nola ez, irakasleoi (maila profesional altuagoa lortu, lanean gaurkotu, alde lanak osatuz esperientziak elkarrekin trukatutu...)

Beraz, umea (eta gaztea) errealitatean eta dagokion kultura integratzea, eta datorkigun gizarte berri zein ezjakinerako gertatzea eta trebatzea helburutzat hartzen badugu, nahitaezkoa deritzogu umea bere ingurunearen azterketan murgiltzeari; honetarako behar diren tresnak, edukiak, gaitasunak eta jarrerak eskainiz. Lan honi maila desberdinetatik aurre egin behar bazaio, guri, gure lanagatik, eskolatik ahal den guztia egitea tokatzen zaigu.

Ikusten denez, gauza asko dago egiteko eta lan ugari. Honen aurrean aukera bi daudela esango nuke. Bata, gure hezkuntz errealitatean ezer gertatuko ez balitz bezala jokatu, eta, bestea -ziur asko zailena eta gogorrena- denon artean, dauzkagun baliabideekin eta utopia hutsean erori gabe, erronka honi aurre egite; errealitate hori, hau da, gure hezkuntz sistema eta beronen emaitzak, bai pertsonalak bai sozialak, hobetoagoak izan daitezken.

Honen ondoren, hurrengo hiruzpalau artikuluetan Ingurunearen ezagumendurako ekintza praktikoetara pasatuko gara, zeren eta gure buruan honako galdera hauek bait ditugu: Zergatik gertatzen den errealitateari hurbiltzea hain ulergaitza? hain aspergarria? hain...

(* Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakaslea

ILE - ERORKETA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik, aprobeitza zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ


URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE



Ia 1.400 jubilatuk bete zuten joan den larunbatean Kiroldegiko kantxa. Zizka-mizkek, arrain zopak, biribilkiak, tartak izozkiaz, kafe konpletoak eta txanpañak osatzen zuten bazkaria, eta aiton-

amonek gustora daztatu zuten menua. Alaitasuna eta lagun arteko giroa nagusi zen, postreetarako "Alegría Navarra" joteroek ambientea girotuz hasi zirelarik. Aiton-amonarik zaharrenak izateagatik, Feliciano Agirre mendearen lehen urtean jaiotakoak, eta Isidora Moreno 96 urtekoak, plaka bana jaso zuten;

eta guztien artean, 308 sari zozketatu ziren: bidaiak, garbigailu, hozkailu, hainbat dendak emandako 5.000 eta 10.000 pta.ko baleak, etab. Azkenean, saridun ala ez, mundu guztia pozik.

Iturbide Egoitzan ospatu den aiton-amonen astean, Ikastolako Abesbatzak emanaldia eman zuen. 11 eta 13 urte bitarteko 48 haurrek "Nik maite nuen", "Mendekoste festetan", "Boga boga", "Zezenak ihes", canon bi eta "Agur Jaunak" abestu zuten. Gurutze Uribarren-en taldeak ondo afinatuta dauka ahotsa, eta "Gaztetxe"ko lagunek gogoz txalotu zuten.



Duela hilabete bat, gutxi gora behera, Bergarako Udal Euskaltegiko talde baten bisita izan genuen. Oso ikasle jator eta txintxoak dira, argazkian ikus daitekeen bezelaxe. Ez dugu kontatu zenbat lagun pasatu diren erredakziotik baina, dagoeneko, ehuneko muga zeharkatu dugulakoan gaude.

izen propioak

□ **Ramiro Gonzalez, 56**, aparailariak bi urtetako utzialdia hartu du Arrasateko Udalean. Ramiro Valladoliden jaioa da eta hogeitabost urte pasatxoaz ari izan da lan horretan. Datozen bi urtetarako zenbait egitasmo du eskuartean.

□ **Isadora Moreno, 96**, Salamancako Cabrerizos herrian jaio zen amandreak, aipamen berezia jaso zuen Xabier Zubizarreta alkatearen eskutik, joan den larunbatean Musakolako kiroldegian bildutako jubilatuz guztien artean zaharrena izan bait zen.

□ **Arrate Urreta, 30**, Aretxabale-tako Udaleko idazkariak utzi egin du bere lanpostua, aurrerantzean Mutrikuko Udaleko idazkaria izateko. Arrate Ermuan jaio zen eta abokatua da, Aretxabale-tako udaletxean lau urte egin dituelarik. Joate honetako harridura eta pena sortu du, bere lana apreziatu duten askoren artean.


□ **Serafin Esnaola, 73**, abade errezildarrak Bergarako S. Antonio auzoko bizilagunen omenaldia jasoko du datorren Ekainaren hamaikan, aipatu auzoan lanean eman dituen hogeitabost urteak direla eta. Bergararatu aurretik Ormaiztegin bi urtez eta Trintxerpen beste hogeitabostez egona zen. Trintxerpetik bidali egin zuten, orduko gobernadorearen eraginez. Jubilatuz zenetik, urtebete terdi dela, Donostian bizi da, asteburuetan S. Antoniora etortzen segitzen badu ere.

□ **Agustin Amasorrain, 39**, bergararrak, bere hirugarren urtea bete du Oronako zuzendaritza-gerentzian. Agustin injinerua da eta masterra du gestioan. Ulgorren lau urte eman eta gero, Ularcon sei urte egin zituen, pertsonal eta hezkuntza sailetan.

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



Kultur eskaintza gehituz Arrasaten

Kulturaz hitzegiten dugunean, hitz horrek zer definitzen duen azaltzea oso zail gertatzen da, hala ere, kultur ekitaldiak definitzerakoan desadostasunak urriagoak dira. Azken hilabeteotan herrian izan ditugun kultur ekintzak orain dela urtebete baino askoz aberatsago eta ugariagoak izan dira. Ugaltze horretan, Udaleko kultura batzordea ekintzak antolatzen hasteak garrantzi berezia izan du. Edozein modutan ere, berau ez dugu herrian kultur ekintzak antolatzen dituen erakunde bakarra.



Adin guztietako jendeak barre egin dezake txontxongiloekin

Urritik aurrera hilero hilero zer-bait

Udaleko Kultura Batzordea, iazko Urrian hasi zen kultur ekintzak antolatzen eta handik aurrera hilero hilero antolatu du zer-bait, gehienbat antzerki saioak eta zineklub emanaldiak.

Zinekluba, hasiera batean Udalez aparte sortutako kultur taldea dugu. Iaz Udalaren laguntzaz zineklub ekitaldia antolatu zuen eta ondoren Iraila-Urrian Udalaren lankidetzaz beste saio bat antolatu zuten. Bi saio hauek burutu ondoren, Zineklub taldea oso ahulduta ei zegoen, pertsona gutxi bait zegoen arduratuta berau aurrera eramateaz. Ondorioz, Zineklubaren ardura Udalaren esku geratu zen. Hilabete horretatik aurrera hilabete bat edo beste izan ezik, hilero izan ditugu Zineklub saioak herrian.

Udaleko Kultura Batzordeko tek-

nikariak azaldu digunez, herriko jendea bilduko duen Zineklub taldea osatzeko asmoa dago, era honetan Udalaren partehartze zuzena ekidinez, momentu honetan berau bait da pelikulak aukeratzeko dituen erakunde.

Bestalde, Udaleko Kultura Ba-

Porrot hauek aztertzerakoan, arrazoi ugari aurki dezakegu, baina euskaraz izatea –euskaraz burutzen diren saio guztietara jende kopuru txikiagoa joaten bait da– eta musika kulta izatea agertu dira arrazoi nagusitzat.

Dena dela, Udalak antolatutako antzerkietara nahiko jende hurbildu izan da, gaur egun joaten den jende kopurua 200-250 pertsona bitartean finkatuta aurkitzen delarik. Antolatutako hiru antzerkietatik bat euskaraz izan dadila ahalegintzen dira Udalekoak. Esan beharra dago, haurrentzat antolatutako ikuskizunak izan direla ikusle gehien izan dutenak, sarritan 300 ikusletik gora.

Arrasateko Kultura Batzordeak urtean ekintza guzti hauek antolatzenko hamar milioiko aurrekontua du, eta beren ustez beraiek eskaini beharko luketen eskaintza jende esparru zabal bati zuzendurik egon beharko litzateke.

Beste zenbait erakunde

Arrasaten kultur ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeen artean, Udala aipatu gabe utzi ezin badaiteke ere, beste zenbait erakunde dugu kultur ekintzak antolatzen ahalegintzen direnak. Berauen artean, aipatu gabe ezin utzi AED elkarte. Elkarte honek ekitaldi ugari antolatu ditu urtean zehar, beti euskaraz eta sarritan jende ugariaren partehartzea izan

Udalak, erakunde ezberdinei laguntza emateko orduan, nahiago izaten du egitarau osatuei diru laguntzak ematea, behin behineko ekintzei laguntzea baino

tzordeak antzerki eta musika saio ugari antolatu ditu, emaitzak era guztietakoak izan direlarik. Udalak antolatutako ekintza hauen artean, porrotik handiena, zenbait euskal musika saioetan eman da. Adierazgarrientzat Maite Idirinen kantaldia jar dezakegu, 12 pertsona baino ez bait zen hurbildu Amaia antzokira.

duten saioak. Horrela ezin ahaztu, Gaztetxea zela eta, herrian, sortu zen iskanbilaren ondorioz, beraiek antolatu zuten mahaiinguruak Monterron Kultur Etxeko hitzaldi-aretoa bete zuela.

Bestalde, SUDCek ere kultur ekintza ugari antolatzen ditu. Aurtentzen, urtero antolatzen dituenaz gain,

herrian izan dugun sukaldaritza txapelketa aipa dezakegu.

Dena dela, Emakumeen Asanblada, Besaide elkarte edo beste hainbat erakunde ere aipa daitezke kultur ekintzen antolatzaile gisa, baina hemen denak aipatzea luze joango litzaiguke.

Talde guzti hauek, kultur ekintzak antolatzeko orduan Udalaren laguntza izaten dute. Udalak, nahia-go izaten du urte osorako kultur egitarau osotuei dirulaguntzak ematea, behin behineko ekintzei laguntzea baino. Hala ere, ekintza hauek ere, Udalaren dirulaguntza izaten dute normalean.

Gazteria zerbitzua ere paus-txoak ematen

Denbora laburreko bizia duen Gazteria Zerbitzua, orain berri hasi zaigu kultur ekintzak antolatzen. Hala, etxebizitzaren arazoari buruzko hitzaldia edota azken bi asteotan antolatu dituen antzerki emanaldiak aipatuko ditugu. Zerbitzu honek eskaintzen dituen kultur ekintzek gazteei bereziki zuzenduak egotea dute berezitasun nabarmenentzat. Edonola ere, Zaldibar pilotalekuan antzerki emanaldiak antolatzen aha-

Puntu honetan ezin izango dugu aipatzeke utzi Udalaren zerbitzuek, Gazteria eta Kultura zerbitzuak, duten deskoordinazioa. Horren ondorioz, bi zerbitzuak gauza bera antolatzen aurkituko ditugu edota asteburu berean antzerki lan bi ikus-

Ekaina kultur ekintzetan aberats suertatu zaigu eta San Juan festekin amaiera ezin hobea izango du. Aurtengo San Juan jaiak 11 milioiko aurrekontua dute eta berauen prestaketa-lanetan talde ugari hartu du parte. Hala nola, Santamas komi-



S. Juan festetan musika jaien parte izango da

teko aukera izango dugu, beste asteburu batzuetan honelako ikuskizun batez disfrutatzeke aukera galduz. Zerbitzu hauetako teknikari biek

sioak, SUDCek, Lore Gazteak dantza taldeak, Kuadrilen komisioak eta Arrasateko gaiteroek.

Antolaketa lanetan parte hartzen duten taldeek ekintza batzuen ardura beren gain hartzen dute eta aurrekontu bat prestatu. Behin talde guztiek euren asmoak azaldu ondoren, aurrekontu bateratu bat prestatu eta kultura batzordean eztabaidatzen da, ondoren Udalaren Gobernu-Batzordeak behin betiko onarpena emateko.

Aurtengo San Juan festak iazkoekin gonbaratzen baditugu, gauza berri handirik ez dutela esan behar dugu, dantzaldiak, kirolak, joquak eta bazkari herrikoiak egitarauaren zatirik garrantzitsuena betetzen dutelarik.

Gazteria Zerbitzua Zaldibar pilotalekuan antzerki emanaldiak antolatzen hasi da, Kultur eskaintzak Amaia antzokitik desentralizatzeke

legintzea ere aipatu behar da. Zaldibarren ekintzak antolatzea, kultur eskaintzak Amaia antzokitik desentralizatzeke ona izan daiteke, baina eguraldiak laguntzea ezinbesteko baldintza da. Esaterako, pasa den asteburuan Zaldibarren antzestu behar zen Ni naiz kapitan piloto, lana bertan behera utzi behar izan zen eguraldiak ez bait zuen lagundu.

hitz egiteko aukera izan dugu, eta biek koordinazioa beharrezko ikusten dutela aipatu digute, baina hori beren esku ez dagoela gehituz, azken hitza politikoeke dute eta.

Festetan ekintzak ugaltu

Dagoeneko gainean ditugu aurtengo San Juan jaiak eta beronen egitaraua jadanik prestatuta dago.

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



Indarrezko Botoa



Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTA

FAGOR SUKALDEEN HORNI-
DURA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza,
gestio eta
salmenta-zerbitzuak
eskaintzen
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana

Frantsesa

Ingelesa

89 - 90 Ikasturtea

Matrikula

epea

zabalik

Bulego

Ordutegia:

4etatik 8etara

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

berango

Arotzeria orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak
(Behea) Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE

Tfnoa: 761954 BERGARA

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik
onenen aukera zabalena

Garibai, 9 Tfnoa: 798997

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua, emakumei bereziki zuzendua

Arrasateko Famili eta gizarte heziketarako zentruak aurten hamazazpi urte beteko ditu. Urte guzti horietan arrasatear ugari hurbildu da bertara ikastaroren bat egiteko asmoz. Ikasturte honetan berrehunen bat pertsona izan da bertan mota bateko edo besteko ikastaroren bat burutzen. Zentruko arduraduna Jone Astigarraga dugu, eta gaurkoan aldizkariko orri honetara ekarri nahi izan dugu zentruaren inguruko zenbait gauza konta diezagun.

— Zentru hau zein helburu betetzeko sortu zen?

— Famili heziketarako zentrua, jende guztiarentzat ateak irekita izan arren, bereziki emakumei eskaintzeko sortu zen. Zentru zabala da eta emakumez gain, gizonezkoak ere etortzen dira, ikastaroren bat egitera, baina hasierako nortasun hori galdu gabe. Jende horri ihardueraren batean aritzeko aukera emateko sortu zen.

— Zentrua Santamainan egoteak arrazoi bereziren bat du?

— Bai, zentrua nahita jarri zen Santamaina auzoan. Zentrua egin zenean auzoa berria zen, eta erdigunetik kanpo bizi zen jendea zerbait eskaini behar zitzaioela pentsatu zen. Arrazoi hori dela medio kokatu zen zentroa Santamainan. Edozein modutan ere, gaur egun edozein lekutik etortzen zaigu jendea, Aretxabaletatik ere bai, beraz auzoa gainditu duela esango dugu. Hala ere, esan behar da aktibitatearen arabera jende mota bat edo beste etortzen dela. Aurten, adibidez, sofrologia ikastaroa antolatu genuen eta hurbildu zen jendea gehien bat erdigune ingurukoa zen. Aldiz, puntu, gakorraz-lan edo horrelako ikastaroetara Santamainako edo Musakola emakumeak etortzen dira. Egunero etortzeko zentrua urrutibait dago kalean bizi diren emakumeentzat.

— Momentu honetan zer zerbitzu eskaintzen diezue arrasatearrei?

— Zentruan ikastaro ezberdinetan

parte har daiteke. Aurten esaterako, sexualitate, marrazki eta pintura, psikologia, ebaketa eta jantzigintza, euskara, eskulanak etab. i buruzko ikastaroak izan ditugu. Nolabait ulertzeko, zentruak bi ikastaro mota ematen dituela esan dugu, batetik kultur ikastaroak eta bestetik aisialdia betetzeko ikastaroak, eskulanak, etab.

Kultur ikastaroetan, kultura orokorra, parte hartu nahi duten pertsonen mailaren arabera, psikologia edo heziketa pertsonala eta euskara ikastaroa ematen ditugu. Psikologia ikastaroa beti eman izan dugun ikastaroa da, berau jendeak gauzen aurrean kontzientzia kritikoa har dezan zuzendurik dago eta euskara klaseak ni hemen lanean hasi nintzenetik ematen dira. Garai hartan Arrasaten ez zegoen euskara ikasteko aukera handirik eta gu zeudenen artean bat gehiago ginen. Gaur egun, gurea baino leku egokiagoak daude eta horregatik hemen euskara talde txiki batzuei eskaintzen zaie.

Aisialdia betetzeko ikastaroetan sukaldaritza, eskulan, tapiz eta beste ikastaro ezberdin ugari eskaintzen ditugu.

— Zentrura hurbiltzen den jendea nolabait sailka al daiteke?

— Beno arratsaldean etortzen direnak, hau da, 3,30etatik 6ak bitartean etortzen direnak, normalean emakumeak izaten dira. Hauek hileroko 1000 pta. ko kuota antzeko bat ordaitzen dute eta ordu horietan burutzen diren ikastaro guztietara



Jone Astigarraga

joan daitezke. Ordu honetan etortzen diren emakumeak bi taldetan bana ditzakegu, batetik haur txikiak dituzten emakumeak; hemen haurtzaindegia izatean, bertan uzten dituzte haurrak eta libre geratzen zaizkien ordu horiek zerbait egiteko aprobetxatzen dituzte emakume hauek. Eta bestetik, jadanik haur helduak dituzten emakumeak 40 urtetik gorakoak, ezer egin gabe etxean aspertzen diren emakumeak. Emakume hauek dagoeneko beren eginkizuna bete dute eta beren buruari zer egin dezaketen galdetzen diote. Emakume hauekin guk aurrezaintze antzeko lana burutzen dugu. Adin horretan emakumea premenopausia garaian dago eta askok depresioak eta tristurak eta horrelakoak izaten dituzte. Emakume horiek beste batzuekin hitz egitera, edo egotera baino ez dira etortzen. Jendea hobeto sentitzen da eta aldi berean ordu libre horiek betetzen ditu.

— Zuek nahi dituzuen ikastaroak antolatzen dituzue?

— Beno orain dela urte batzuk, urteko programa hona etortzen zen jendeak egiten zuen. Gaur egun, zentruan zein iharduera burutuko den geuk erabakitzen dugu. Nola nahi ere, ikastaro bat antolatzeko adina jende bilduz gero, eurek eskatutako ikastaroa antola daiteke.



Arrasateko ekipua, oso osorik

Arrasate bigarren herriarteko Judo-txapelketan

Larunbatean zuriz jantzi zen Kiroldegia. Bost talderen artean, Arrasateko Judo Taldea bigarren suertatu zen larunbatean izandako txapelketan. Guztira, 50en bat gaztek, bost ekipotan banaturik, hartu zuten parte lehian. Azkenean, horrela gelditu

zen sailkapena:

1. Ondarroako Artibai.
2. Arrasate.
3. Debako Ekiberri.
4. Azpeitiko Kimura.
5. Eibar.

Lehiaketa oso parekatua izan zen, Arrasatek eta Artibaik garaipen kopuru berdina lortu zuten, bizkaitarrek puntuz hartu zieten aurrea. Txapelketan neskek zein



Borroka parekatuak izan ziren

mutilek, nahastuta, hartu zuten parte. Mondragoeko taldea, Julio Gallekok prestatuta, honako gazte hauek osatu zuten: Mario Iglesias, Oscar Andres, Diego García, Iker Murillo, Jon Lezeta, Barazi Bengoa, José Antonio Merchán, Zigor García, Gaizka Aranegi eta Ruben del Monte. Bertan bildutako jendetzak gustora igaro zuen herriarteko txapelketaren IV. Ihardunaldi hau.

Atletismoa: Arrasatek 1go kategoriari eutsi

Asteburuan Donostian izandako Euskadiko taldekako txapelketan Arrasate 6garren suertatu da, ondorioz, 1go kategoriari eutsi dio. Arrasatearren atzetik Getxo eta Ordizia gelditu dira, kategoria galduz. Honako hauek dira Fernando Zufiriak aurkeztutako atletak: Lorenzo Avila (100 m.); Miguel Sancho (200 m.); José Antonio Gay (400 m.), José Ramon Petreñas, Javier Mentxaka (1.500 m.), Alfonso Luelmo (5.000 m.), Enrike Kabiketa (10.000 m. hesiak), José Luis Caballero (400 m. hesiak), Luis Fdez. (3.000 m. ozto-poak), Alberto Iriarte (altuera), Mikel Uribesalgo (luzera), Rafael Paez (jauzi hirukoitza), Bittor Alon-

so (pertika), Aitor Bergaretxe (pisa), Asier Fdez. de Arroiabe (diskoa), Ignazio Maizbide (jabalina), José Luis Unzueta (mailua), José A, Fuentes (10 km. ibilketa), Avila, Alonso, Sancho eta Paez (4 . 100) eta Martín, Petreñas, Caballero eta Gay (4 . 400).

Arrasatek, guztira, 80 puntu lortu zituen, eta Zufiriaren mutilek honako domina hauek etxeratu zituzten: urrezko bi: Gayk 400 m.tan: 49.32 eta Maizbidek jabalinan: 54,16; zilarrezko bat: Alonsok pertikan: 3,90 eta bronzeko beste bat: Iriartek altueran: 1,93.

Lehenengo bi postuak Real Sociedad-ek, 133 punturekin, eta Atletico San Sebastian-ek, 118rekin, bete zituzten.

Bikaintzat jo daiteke mutil hauen



J. A. Gay, irabazle 400koetan aktuazioa, kontutan hartuta taldea iaiztik bakarrik dabilela 1go mailan. Zorionak.

UGARAN jatetxea

Garagartzza auzoa - t/797658 Arrasate

**empresa
bazkariak
eta
famili bilerak**

podiuma


Julio Gallego, judo irakasle eta arbitroa

Julio Gallego Azpeitian bizi den ermuarra dugu; duela 6 urtetik hona, hiru bider astero, ematen ditu judo klaseak Kiroldegiak. Astean behin, Elgoibarren ematen ditu klaseak, eta beste behin Eibarrera joaten da, bere mailako judokekin praktikatzera. Judoa dela eta, kilometro pila egin beharrekoak astero, beraz. 5 eta 34 bitarteko 60 edo 65 lagunek praktikatzen dute modalitate hau Arrasaten; eta neguan gehiago; batzuk, udan beste diziplinekin konbinatzen dute.

Juliok gerriko beltza preziatua, hirugarren dana, dauka. Arbitro nazionala ere bada, Espainiako lau txapelketa arbitratu dituelarik. Arbitro bezala 9ko kalifikazioa du.

Oso pozik zegoen larunbateko herrien arteko txapelketa bukatu zenean, "oso interesgarria izan da, konbateak oso parekatuak izan dira, garaipen gehienak puntuz lortu direlarik. Arrasateko taldeko aktuzioa bikaina izan da, bigarren postuan geratuz. Ez dugu sufritu letsio bat ere, eta publikoa ere, uste dut gustora egon dela txapelketa ikusten".

Ohizko kiroletan ez bezala, modalitate honetan neskek mutilen kontra, nahastuta, borrokatzen ikusi ditugu. "Bai batzuetan horrela egiten dugu. Neskek normalean indar fisiko gutxiago izaten dute; baina, aldiz, askoz elastikoagoak dira. Judon oso inportantea da lurrera



Juliok gerriko beltza preziatua du

jausten jakitea, eta horretarako neskek flexibleagoak dira".

Esperientziako 14 urtek ematen dion segurantzarekin, horrela definitzen du Juliok judoa: "Judoa oreka eta koordinazioa garatu, eta agresibitatea kanalizatzen duen arte martziala dugu. Kirolik konpletoenatarikoa da, eta ia ez dago letsiorik. Kaloria pila galtzen dira praktikatzeko. Konpetizio mailan, bestalde, oso gogorra da. Psikomotrizitate-arazoak dituzten umeentzat oso ona da. Guk taldean baditugu batzuk, eta gutxipen sikikoak dituzten beste batzuk ere bai. Umeentzat jokoa da judoa, eta euren amek esaten didatenez, judo klasetik etxera etortzen direnean, afaldu eta berehala lo siku gelditzen dira".

Argi utzi nahi du judoak ez duela zerikusirik agretsibitate edo indarkeriarekin, "judoak egiten duena denok daukagun agretsibitate kanalizatzea da, judo defentsa pertsonalerako erabiltzen duenik ez dut ezagutzen".

□ Hiru arrasatear, Moskura

Mirari Armendia, Idoia Mendikute eta Inma Flores joango dira, datorren abuztuan Moscun izango den Europako Aletazko Igeriketa Txapelketara. Selektzioa ateratzeko azkenengo proba larunbatean izan zen Arrasaten, bertan, abiadura eta iraupen espezialitaterako 12 plaza betetzeko, Estatu osoko 25 aspirantek lehiaketan parte hartu zutelarik.

□ Udako Kirol Kanpaina

O.H.O.ko ikasleei jakin erazten diegu hilaren 27an zabalduko dela aurtengo udako kirol kanpaina. Honako kirol mota hauek praktikatzeko aukera duzue: Ekainaren 27tik aurrera: Igeriketa, Waterpolo, Aerobic, Karate, Judo, Erritmika soinetak, Futbola, Rugbya, Tenisa, Piraguismoa, Wind-Surfa eta Squasha. Eta Uztailaren 3an: Saskibaloia, Beisbola eta Sarebaloia. Izenemateak, Kiroldegian.



Dorletako Ama, txapeldun

Astebukaeran izandako erlojuaren aurkako proban Alejandro Altuna taldea Kadeten 2. mailako Gipuzkoako txapelduna suertatu zen. Leintz Bailarako ibilbide bati 30 km.ko bi buelta osatzen zuten ibilbidea. Proban 15 ekipok hartu zuten parte. Iñigo Roldan, Eneko Garai, Josu Ibabe eta Ruben Ramos, 43'09''00'' denbora bateaz, garaile suertatu ziren.

Denborapasen soluzioak

Zutabeak jausi dira

Estazio abandonatu bat, aulki bi, eta hamaika istorio asma ditzake tristorak!



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE




BELUN

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

Indarrezko Botoa



“Solus labor parit virtutem. sola virtus parit honorem”

“Solus labor parit virtutem, sola virtus parit honorem”

Esaldi honekin koroatu zuen Bañez de Artazubiaga-tar Asensiok XVI. mendeko jauretze hau, Arrasateko monumenturik adierazgarrienetako bat duguna, bai berpizkundeko euskal arkitekturaren lekuko delako, bai bere erraietan garai hartako gizarte eta politikaren nondik norakoak ixilpean gordeta mantentzeagatik.

Artistikoki eraikuntza xumea da, apala (sobera hitzegin da euskal maisuak XVI. mendeko arteari eman zion itxura apal honetaz), kultura berri baten fruitu, humanistagoa, hiritarragoa, inoiz ez bezala lanbide liberaletan oinarritzen zen ekonomi berri batena.

Harri haundi landuez eraikia, burni landuzko balkoiekin hornitua, garaiko usadioaren arauera, eta moldura eta erliebez jositako artisautza batek apaintzen duelarik (nahiz eta egun aurreko horma besterik ez zaigun geratzen) gizaldi eta gizaldietan inguru hauetan mantendu den lan izpiritua agerian uzten du.

Bestalde, harmarriak hedatuz zihoazen. Honako hau nahiko zakarra da itxuraz, baina esanahi handikoa, ordea, batez ere gure herriak bizi izan zuen egoera sozio-politikoa, Oinaztar eta Ganboatarren arteko gatazka, alegia, gogoratzeko orduan. Harmarrian sutan dauden bi aizkora azaltzen dira, beso bik eutsita, dorre bat kiskaltzen. Honek

Asensioaren arbaso zen Juan Bañezek burututako pasarte bat jasotzen du, zeinak, Oñatiko Gebaratarren gehiegikerien aurrean ez makurtzearen, Bedoñako bere etxea erre bait zuen, eta Arrasate herrira bizitzera etorri.

Jauntxoek aurkako errebolta hauek gero eta usuago gertatuko dira, hiriko burgesia berriaren eskutik ezezik, baita nekazal herri xehearen partetik ere. Guzti honek, 1624.eko Biltzar Nagusietan zera esatera eramango du bat baino gehiago, hots, Ahaide Nagusien noblezia ez zela edozein gipuzkoarrena baino maila altuagokoa.

Badirudi Bañezek nobleziaren amaieraren hasiera iragarri nahi zuela.

AMEN

Mikel Arregi

SEAT

Udalaitz, S. A.



**GARANTIAK
SENDONA!**

Tailerra: Musakola Auzoa, z/g

Erakusketa: Zarugalde, 35 etxebehea

Tfnoak: 79 21 25 - 79 18 80

ARRASATE

“ **PAL** ”

burdindegia, brikolage

eta

tresneria

Uribarri etorbidea,3

Tfnoa 79 31 99

**M
A**

ARENAZA

Altzariak

Diseinua

Apainketa

Bizkaia 1, Tfnoa: 79 08 07

Aretxabaleta

JOSE MARIA ARZAMENDI Doktorea

*Kirurgia orokor eta lisert-aparatukoa
Kontsulta astelehen eta ostegunetan,
5,30etan hasita currez ordua eskaturik
Igalatorioa mediko kirurgikoa*


Lagun-Aro eta beste aseguro batzuk

Biteri Etorbidea,2 - 11 Tfnoa: 79 21 73 ARRASATE

Memesa

79 42 22

Bartzelonako nazioarteko auto-erakusketa



NISSAN ARC-X

Amaitu berri da bi urtez behin antolatzen den Bartzelonako Nazioarteko Auto-erakusketa. Aurtengo honetan, erakusketaren zifrek igokada haundia izan dute: 95.000 metro karratuko azalera, 1.050 erakusle, 700.000tik gorako ikusle-kopurua, etab. Guzti hau autoaren industriari bizi duen euforiaren adierazgarri.

Ugaritasunaren ondorioz, ez da egon aurten nabarmen nagusitu den nobedaderik. Auto merkeen arloan aipagarri litzateke Europa ekialdeko autogileen ahalegina emaitza erakargarriagoak lortzeko,

ohizko salneurri apaletatik gora egin gabe. Ikerkuntzari dagokionean, Bartzelonan egon dira hainbat autoetxeren auto esperimentalak, hala nola Renault-en Megane, Citroen-en Activa, Peugeot-en Oxia, Nissan-en ARC-X eta Mazda-ren MX-03a. Prototipo

hauetan ari dira lantzen etorkizuneko autoen ezaugarri nagusiak, eta bereziki informatikaren erabilpenak ekar ditzakeen abantailak.

Dena den, eta lehen genioenez, erakusketa honen daturik aipagarriena erakusketak berak adierazi duen indarra litzateke, eta honek erakusten duen auto-industriaren egoera osasuntsua. Izan ere, eta Espainiako estatuan saldutako autoei dagokienez, iazko urtean milioiaren kopurua gainditu zen lehen aldiz, eta aurtengo erritmoa oraindik biziagoa omen. Bestalde, erakusketan aipatu diren arazoen artean, BEZarená -Espai-

nian autoek ordaintzen duten BEZ edo IVA Europako altuena da- eta autogile japoniarrak sartzeko dauden oztopoak azpimarratu behar.

Arazoak arazo, autoen industriari oparotasuna nabari da. Gero eta autogile gehiago, eskaintza gero eta ugariagoa, produkzio-kopuruak gero eta handiagoak...Eta guzti horren euskarria gu, auto-erosleak. Presta gaitetzen, bada, publizitatearen erasoari aurre egiteko. Saia gaitetzen aztertzen ea sentitzen ditugun premiak zenbateraino diren benetakoak edo publizitateak eragindakoak. Ahalegin gaitetzen informazio zuzena jasotzen eta ez interesatua. Atera ditzagun kontuak ondo, erosi nahi dugun hori guztira zenbat kostatuko zaigun jakiteko.

Eta, badaezpada, jar gaitezen San Kristobalen eskuetan, gidarion patroia haundiak bide onetik eraman gaitzan.

Mikel Intxausti

UDA 89 IKASTAROAK

ARRASATE
ARETXABALETAKO
BERGARA



UDAL EUSKALTEGIAK



NOIZ: Ekainaren 26tik
Uztailaren 21era arte

MAILA GUZTIAK
5 eskolordu egunero

MATRIKULALDIA:
Ekainaren 22ra arte

PREZIOA: 4. 800 pta.

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
ARETXABALETAKO UDAL EUSKALTEGIA
BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

79 70 77
79 21 68
76 44 53

Haurrekin jolastearen garrantzia

Azken denboraldian jolasari buruz idatzi ditugun artikuluetan zehar, denok oso familiar eta ezagun ditugun zenbait ideia azpimarratu nahi izan dugu.

Haurarentzat jolastea oso garrantzitsua da, beren bizitza eta ihar-duera normala da; jolasean haurra libre sentitzen da, eta gustora sentitzen da.

Jolasaren bidez, inguratzen duen mundua nolakoa den ikasten du haurrak; bere ondoan dauden objektuak aztertzen ditu, gauzak eta objektuak harremanetan jartzen ditu, beraien ezaugarriez jabetuz; nagusien mundua imitatzen du; eraikitzaile txiki bihurtzen da; asmatzaile txikia da.

Batzuetan jolasa eta lana kontrajartzen ditugu, zera pentsatuz: Haurrak jolasten badu ez du ikasten, jolasten duenean denbora galtzen du. Eskolako lanaren efikazia ere zalantzan jartzen dugu, eskolan gehiegi jolasten dutela pentsatzen

bait dugu (eskolan kartetan ibiltzen dira, partixean jolasten dute, kolo-rezko fitxekin jolasten dute, mozo-rrotu eta antzerkia egiten dute, ikas-gelatik atera eta paseatzera joaten dira,...)

Halere, ondo aztertzen badugu, zera ikusiko dugu: haurrari jolastea ez zaio kostatzen, jolasean guztiz motibatua sentitzen da eta oso gauza serioak ere egiten ditu. Adibide simple bat: haurrak kartetan ibiltzen direnean, "seiko urrean, adibidez, kontatu egiten dute, kartak sailkatu ere bai, lagunak zer egingo jakiten saiatzen dira, seriozioak egiten dituzte, kartak handitik txikira ordenatzen dituzte. Laburtuz, ongi pasatu ez ezik, matematiketako klaseetan ikasten dituzten gauza asko ere ikasten dituzte.

Haurrak berekin jolastea eskatzen digu nagusioi, gurekin jolastea nahi du, gu bere garapenen lekuko izatea nahi du; gu bere jolasetako partaide izatea nahi du, baina ez

zuzentzeko eta antolatzeko, aurrera jarraitzen animatzeko baino, bide berriak eta jolas berriak iradokitze-ko, jolasetan aurkitzen dituen arazo txikiak soluzionatzen laguntzeko.

Haurarentzat ona da taldean, beste haurrekin jolastea. Eta bakarrik jolastea ere ona da, edo beste modu batera esanda, bakarrik dagoenean ere jolas egin dezake, eta ona da olgetan ibiltzea.

Zalantzarik gabe, beste haurrekin jolasten duenean, konpartitzen, amore ematen, irabazten eta galtzen ikasten du; bere kalitateak, ahalmenak eta mugak ezagutzen ditu. Eta bakarrik jolasten duenean, bere inteligentzia eta bere sormena garatzen jarraitzen du, bere sentimenduak adierazten eta bideratzen jarraitzen du.

Bakarrik jolastu, edo besteekin jolastu, jolasa da haurraren mundua.

Haurrak jolastea garrantzitsua da eta nagusiak haurrekin jolas egitea ere bai.

Klarion taldea



IRAKASLE ESKOLA

AURREINSKRIPZIO-EPEA

1989-1990 ikasturterako izena emateko epea ekainak 1-ean zabalitzen da.

Informazioa: Irakasle Eskola
Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 04 40

ANDERE

Bainu eta sukaldeko
ALTZARIAK

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurrira egin eta ezarri.

*Lehen mailako elekratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurrira ezartzekoak.

*Egituraketa prolektuak konpromesurik gabe.

*Diselnu altzarletan trebatuak gara.

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

MARTINEZ aroztegia

Sukaldetan neurri guztietako altzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

Maiatz

ILEAPAINDEGIA mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)
Tfnoa: 79 58 78
ARRASATE

Trafikoa

Nahiz eta trafikoko istripuak gaur egun konstante bat izan, ez dira albiste. Ohiturazko gauzak direnez, etsipenez onartzen ditugu, aurrerapenari zor diogun zerga bezala.

Istripu horietatik batzuk errepi-deetan gertatzen dira: bidaia luzeak egiterakoan, oporrak eta "zubiak" direla-ta... baina beste batzuk hiri barruan gertatzen dira; hauetan haurrak eta pertsona nagusiak izaten dira biktima, haietan berriz gazteak.

Sarritan gehiegizko abiadura izaten da konstante bat.

Gure herrian urtero trafikozko istripuetan pertsona batzuek bizia galtzen dute edo zaurituta suertatzen dira. Jende askoko kaleetan azkarre-gi, abiadura haundiegian, ibiltzen gara.

Abiadura mugatzen duten seinaleek gutxirako balio dute. Zebra-bideak ez dira errespetatzen, leku

batzuetan ibilgailuak espaloi gainean uzten dira errepidearen bi aldeetan, estugune edo enbutuak sortuz eta handik beste ibilgailu batzuek eta oinezkoek ere pasa behar izaten dute, arrisku haundiarekin gehienetan. Euskal Herriko komunitate autonomoan trafikozko istripuek gero eta garrantzi haundiagoa dute hilkortasunaren kausa bezala, 15 urtetik gora eta 34 urte bitartean heriotzaren lehenengo kausa dugularik. Tasa haundienak 15-34 urte bitarteko taldeak ditu (100.000 biztanleko 17,96).

Kontsumo-gizarteak duen sinbolik garrantzitsuenetako bat automobila dugu. Honen bitartez aberatasuna eta boterea agertu nahi ditugu eta horregatik sarritan premiarik gabe erabiltzen da, oinez erraz egin daitezkeen desplazamenduak egiteko erabiltzen dugu; baina horrela

egingo ez bagenu, gure herri eta hiriak aberagoragoak, bizitzeko erosoagoak eta arrisku gutxiagoak izango lirateke.

Mehatxu atomikoa gizateriak duen Damoclesen ezpata bat bezala hartzen dugu. Baina arrisku haundiena automobila dugula esatea ez da gehiegikeria. Urtero Hiroshimako leherketak baino pertsona gehiago eramaten ditu, natura hondatzen du eta era berean eguratsa.

Automobil bakoitzak, gizon batek urte betean behar duen beste oxigeno gastatzen du mila kilometrotan, iheste-hoditik karbono monoxidoa, benzopirenoak, beruna eta hidrokarburoak botatzen ditu, guzti hau osasun eta biziarentzako mehatxu handia delarik,

Erabil dezagun automobila derri-gorrezko dugunean bakarrik.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*


La Polla Records

**Tahures Zurdos
Potato**

**Arrasateko
Kiroldegian**

Larunbata 17an. 10etan

**Antolatzaile:
Jai Batzordea**



Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

**TXOKO
TABERNA**

**Gure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak**

Indarrezko Botoa




**ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN**

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64



Agentzia inmobiliarioa ireki behar da

Gure herriko Iturriotz kalean Agentzi inmobiliarioa laster irekiko da. Negozio mota hauek direla eta, jendeak bere buruari galdera asko egin diezaioke, adibidez, zein abantaila eskeini ahal dien honelako agentzia batek.

Jakina, denbora izango da herritarrei eskeinitako zerbitzuen lekuko, baina galdera garrantzitsuenei erantzuna ematen saiatuko gara orain.

— “Inmobiliaria” hitza entzutean bururutzen zaigun lehen hitza “espekulazioa” da

— Oker zabilta. Agentzia inmobiliarioak hirugarren pertsonen arteko sal-erosketa, errentapen edo inmiebleen atzeraurretarako beharrezkoak diren zerbitzuak gestionatzen ditu: guzti hau Gipuzkoako “Colegio oficial de Agentes de la Propiedad Inmobiliaria”k izendatuak dituen kantitateen truke.

— Operazio hauetan bitartekoa dagoenez, inmiebleen sal-erosketaren merkatua garestitu egingo da. Ez da horrela?

— Ez, ez! Batetik, inmieble bat saldu nahi duten pertsoneri zera demostratzen badiegu, alegia, euren inmieblea gure bitartez saltzea errentagarriagoa dutela eta bestetik, erosi nahi dutenei ere gu tartean gaudela ez zaiela garestiago izango erakusten badiegu, eroso baina, Arrasateko inmiebleen prezioen finkaperantz urratsik garrantzitsuena emana izango dugu.

Eskaintza eta eskarien kontzertazioak, merkatuko prezioen egonkortasuna eta bateratasuna sortaraziko ditu. Kasu batzuetan, aldian aldiro arrazoiengatik, ematen diren gehegikeriak zailagoak izango direlarik.

— Inmueble bat dutenei saltzea, zuen Agentziaren bitartez errentagarriagoa zaiela diozu?

— Jakina. Lehenengo, eskaintza eta eskariaren arteko loturaren arauerara, inmueblearen prezioa izan litekeena esaten diegu, azkenean bezeroak dioskun prezioan jarri arren.

Bestalde, epe laburrean saltzeko posibilitate handiagoa eskeintzen dugu, merkatuan sarturik gaudelako eta inmuebleen erosketa eskatzen duten pertsonak ditugulako. Horrela erosteko ezelako asmorik izan gabe ikusmiratzera eta prezioa eztabaidatzera joaten diren pertsonen bisitak ekiditen dizkiegu. Guk, inmueblea, bakarrik, benetan interesaturik dauden pertsoneri erakusten diegu, eta saltzaileak, hala nahi badu, bere presentzia ere ekiditen dugu, baita prezioaren eztabaida ere.

Salerosketan akordio batera helduz gero, prestaketa guztiak egiten ditugu, saltzaileak notarioarengana eskriturak sinatzera joan baino ez duelarik. Baina, gure eginkizuna ez da hemen amaitzen, bezeroak epezialista adituen eskutik aholkularitza fiskala jasotzeko eskubidea bait du.

— Zer diozu erosteko asmoa duten pertsonetz?

— Hauek, aukera ezberdinak eskatu ahal dituzte eta salgai dauden inmuebleei buruzko informazio egiazko eta profesionala jasotzen dute. Ez diegu inmueblearen akats edo berezitasunez ezer ezkututzen eta beraien legezko egoera garantizatzen diegu.

Ongi dagokion ordainketa plana eta behar dituen maileguak gertatzen dizkiegu, gai fiskaletan aholkuak emanaz.

Salerosketan, behin adostasunera helduz gero, dokumentazioa ematen diegu sinatzeaz arduratuz. Guzti hau dohainekoa da, pisuaren balioa baino ez duelako ordaintzen.

— Zer diozu turismo-inguruetako inmueble erosketari buruz?

— Bai Euskadin, batez ere, kostaldean, Mediterraneoan eta Aragoiko Pirineotan apartamentu, chalets etab.en salmenta gestionatuko dugu. Kontuz ibili behar da erosketa mota honekin. Gu, jakineko diru eragileekin jarri gara harremanetan. Ezer ere ez saltzea nahiago dugu, iruzur arriskuan inmueble bat bakarria saltzea baino.

Lortu ditugun promozioen artean inbertsiotarako interesgarriak diren batzuk badaude. Gai hau, diru aurreztua dutenei interesgarria irudituko zaiela uste dugu.

Oraindik galdera asko erantzunik gabe gelditzen dira, baino hasieran esan dugun bezala denborak guztiak erantzungo ditu. Geu ere, seguraski, berauetaz arduratuko gara.

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN

SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

EPA-HHI

HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

- * Irakurtzen eta idazten ikasteko
- * Eskola-graduatu ateratzeko
- * Zure kultur maila hobetzeko

Ikastetxe publiko eta dohainekoa

Ikasketa ofizialak

Kultur ekintzak

Matrikulatzeko epea:

Ekainaren 5etik 23 arte

Irailaren 4etik 30 arte


Tokia:

* HHiko zentroa, Arratsaldez

Ferrerias kalea, 28 B.

Udaletxeko hezkuntza sallean,
bulego-ordutan.

inpresio ona



inprimategia eta

autoedizio

zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA

ETXEBIZITZAK

- Etxabea eta 2. pisua salgai Erdiko kaleko 6an; Tfnoa: 79 49 36
- Kontsulta medikoa jartzeko, pisua errentan hartu nahi da. Interesatuak dei 11 39 57 telefonora. Gauetan
- Udarako aproposa, Algortan pisua salgai. Bista onak, Aldapas poligonoa. 3 gela, egongela, sukaldea eta komuna. Tfnoa: 469 82 69; gaueko 9etatik 10etara. Bitartekorik ez.
- Pisua salgai erdialdean. Interesatuak dei 79 29 82 telefonora
- Etxebizitza salgai Bergaran, Zubieta kalean. Interesatuak dei 76.38.55 (jatorduetan) edo 76.44.53 telefonoetara.
- Lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi dugu Arrasaten. Merkea bada hobeto. Tfnoa: 79 09 00. Lorea.
- Bikoteak, lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi du. Tfnoa: 79 70 29. Iñaki.
- Mutil eta neska! gelarik libre edo banatzeko baduzue, ondo etorriko litzaidake. Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 79 52 89 telefonora. Aste bukaeretan: (94) 484 90 53 telefonora.
- Torreveja-n bongalow-a alokatzen da. Ekaina, Uztaila, eta Irailean. Deitu 9etatik aurrera. Tfnoa: 79 15 74.
- Aretxabaletan pisua salgai. Loramendi, 11. Tfnoa: 79 04 62
- Janari-denda salgai. (jubilazioagatik) Santa Teresa kalean. Tfnoa: 79 50 18
- Kontsulta Medikoa jartzeko pisua behar dugu alokairuan. Interesatuak dei 11 39 57 telefonora. (gauetan)
- Ikasleak pisu bila. Interesatuak dei 55 14 43 telefonora

- Donostian, Antiguu inguruan, pisua alokairuan Uztaile, Abuztu eta Irailean. Saloia, bainugela eta telefonoa. Eguzki begira, dena kanpokaldera. Interesatuak dei 79 14 69 telefonora
- Pisua salgai. Telefonoak: 79 81 23 eta 79 63 84 Aretxabaleta (Puerta Sol)
- Altamiran garaje-plaza salgai. Tfnoa: 79 38 20
- Pisua alokairuan behar dugu Irailetik aurrera. Interesatuak deitu 76 30 01 eta 79 90 36 telefonoetara.

LANA

- Neska gazteak etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke udan. Interesatuak dei 79 88 73 telefonora. (arratsaldetan)
- Aseguruetarako pertsonala behar dugu. Interesatuak dei egin 79 96 28 telefonora. 10,30etatik 12,30etara.
- Arrasateko Udalak honako lanpostuak bete nahi ditu:
 - * Euskaltegiko Irakaslea
 - * Biltegitzaina
 - * Udalzaina
 - * Obra publikoetako injeneru teknikoa
 - * Enplegu-dinamizatzailea (urte betez)
- Instantziak aurkezteko epea Ekainaren 13an arratsaldeko 6,30etan amaituko da da. Oinarriak Udaletxean eskura daitezke.
- Instituto Politeknikoa, Imjineru Teknikoko Unibertsitate Eskola. Arrasate. Plantillan sartzea eskaintzen dugu:
 - * Injineru Industrialak
 - * Injineru teknikoak
 - * Ingeles filologian lizentziatua, EGArekin.
 - * Fisikan lizentziatua
 - * Gorputz kezkontzako irakasleak

* Teknikari espezializatuak

Ekainaren 19a baino lehen idatziz bidali Curriculum, 23 postakutxara. 205000 Arrasate

— Emakume batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Informazio gehiagorako dei 79 51 05 telefonora. (Ana)

SALEROSKETAK

- Egoera onean dugun 96 bajo duen "pado soprano" akordeoia salgai. Interesatuak dei 79 40 51 telefonora.
- Puch Condor II markako motorra salgai. Tfnoa: 79 87 72
- Seat 127 SS-k salgai. Interesatuak dei 79 80 08 telefonora (gaueko 9,30etatik aurrera)
- Ondo hornitutako ileapaindegia salgai. Tfnoa: 79 95 86
- Estrenaturik dagoen Denda Chalet-a salgai. Iaz erosi. Palma-4 modelo. Merkea. Interesatuak dei 79 07 73 telefonora.
- "Minerva" balantza elektronikoa salgai. Tfnoa: 76 11 60
- Motorra, haundixe, zaharra bada ez dutzo importa. Merke badauketzu erosiko neuke. Tfnoa: 79 88 23.
- Hozkailua eta garbigailu bat behar dira lehenbaitlehen, merkeak badira hobeto. Tfnoa: 79 88 23.

DENETARIK

Hots, kondairazaleok! Orain dela bi hilabete Parrokiaren artxibotik eraman zituzten Parrokiari buruzko datu historiko eta apunte garrantzitsuak itzuli lehenbaitlehen, mesedez. Material hau eraman zutenak ETEO edo Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleak zirelakoan nago. Joxemari. 79 13 20.

ARRASATEN HILDAKOAK

†
Eugenio Zubia Erostarbe,
95 urte. Maiatzaren 31an

Iñaki Laskurain Osinaga,
29 urte. Ekainaren 5ean

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zeharkale estaila 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



"...orduén txarra auena pintxazue zuan,...noberak konpondu biher..."

Luziano Monteroi lagunketan

Bai, "Gran Premio Eibarresa"-ko azkenengo etapie izen zuan Burgos-Eibar. Eta orduen jauan Berrendero lehenengo eta Luziano Montero bigarren, bixek BHKuek neu letxe, eta hirugarrena ORBEA-ko bat. Eta pasau zuan Monterok aberixie ero euki auela Salvatierra inguruan. Orduen ORBEA-kuek ekin jutzien jota egur eta momentu baten zortzi mifeturaiñoko diferentzie euki juen. Orduen niri esan justien "geratu ta etxoixok Monteroi". Ta nik: "Neu geratu? Zela geratuko nok pa, anaie eta danak Eibarren begira egongo dittuk-eta?". "Baietz, etxoiteko!". "Bueno ba...". Holaxe, etxoin eta azkenien 2 mifetuko atara juskuen.

Allegau gitzenien heldu justan Monterok lepotik eta "esto no se me olvidará nunca" eta ttak! sartu justan poltsikuen zeozer,... 500 pezetakue.

Hurrengo, "Vuelta España"ra

Selezionaute Leturiaga jauan, beste ofatiar bat, neure auzokue. Bañe belaunien mifien bat-ero jaukan eta Aiastuik esan justan: "fitxie kanbixauko juau telefonoz eta

GREGORIO IDIGORAS (II):

"Vuelta España"n 25 pta. pagetan juzkuen eguneko"

DESKANTZU-UNAK

"Vuelta España-n hiru egunetik behin deskantzuegune izeten zuan. Abituallamientuetan, barrez, allegetan zanien, geratu, zeozer, kafe ero,...hartu, firmau eta aide!"

Gregorio Idigoras

heuk juen biedok". Emon justan tarjetatxo bat eta atsaldeko seiretan sartu Zumarragan korreuen eta urrengo goxeko seiretan Madrillera bizikeletie hartu eta hotela topetan zoruen pare. Goxetan be noberak preparau biher, han etxauan masajista eta prosoziñok. Bestela organizaziñue ona.

Etapie akabetan zanien maletak beti habitaziñuen eta teatro ero hola-ko kontun batzuk pe beti eta dietie 25 pezeta eguneko.

"¿Señora, tiene algo para comer?"

Hor, "Vuelta España" horretan etapa bat zuan Barcelona-Zaragoza eta urten ta 30 kilometro barru pintxazue euki naixuan. Konpondu eta mobiru nitzuan eta handik kilometro batzutara beste hiru harrapau nittuan: "benga, muchachos!" Apur baten jarraitu gaixuan bañe... euri-xe bota ahala guztie, janik ez ta eziñien danok-pe. Halako baten bati esan nutzan: "Sabes lo que voy a hacer, ahí está una mujer y le voy a preguntar a ver si tienen algo: pan,... lo que sea." Geratu eta eskatu gutzan eta "Si, si, venir, venir". Emon juskuan ogixe ta urdeiazpikue ta aide!

Azkenien mifutu erdi atara juzkuen..

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Beste neska gazte bat juten. da medikuana eta esaten jao:

— Eztakit pa, sendagille oso ondo nerbixotatik nabilen.

— Zer ba?

— Goizian jaikitzen naizenian e sujetadoria jartzerakuan hola titixak e dardarrara bat eitten doste raru.

— Aber ba, aber ba, kenduizu sujetadoria.

Medikuoi hasten da ikutzen titi ppuntei, eta, tin! da tirriiiii, titixa ta. Tin! da tirriiiiiin. Tin! tirriin, da tin! tin! tin!. Neskioidustatzen da ta:

— Ze, grabia al da?

— Grabia eztakit baiña kontajio-sua...

Jose Ramo Peña (Antzuola)

Baserritarrak e tontotzat hartzen daue eta batzuetan ba normalien e bizimodua a base de palo ikaste daue, ez. Zergak diela eta eztiela, bankuekin be eztie fixatzen, eta Erdi Aruan be halako pasadizo bat pasau omen zan. Badatoz erregiaren basalluek baserrixetara zergak hartzen, len e garaue eta holako gauzak hartzen zittuzen. Da badatoz zaldunek, tokoton, tokoton.

Baserritarrak ikusten jok, urdu-ru. Arrimatu dittuk, eta:

— Hola, buenos dias, buen señor.

— Buenos dias.

— Que tal clima tienen por aqui?

— Este año no tenemos ni pisca de clima...

Eugenio Otxoa "Gerra"


Juan Martin Elexpuru



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak




JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE



San Frantzisko

F

rantzizkotarren eliza eta komentua XVI. mendearen azkenaldera hasi ziren jasotzen, baina obrek hurrengo

mendean zehar ere iraun zuten. Arkitektoa Migel Aranburu, Zeraingo fraide ospetsua, izan zen eta Rafael Larralde bergarrek burutu zuten. Joan mendeko desamortizazioengatik komentu gehienek hustu zirenean, Arrasateko hau ere fraiderik gabe geratu zitzaingun. Dena den, tarte horretan parrokiako abadeek izan zuten eliza eta etxearen kargua; 1892an komentua ikastetxe eta ospitale bihurtu zen moja mertzedarien ardurapean; eta azkenik, ehun urte baino gehiago Mondragoetik kanpora egon ondoren, 1954ean bueltatu ziren frantzizkotarrak beren jatorrizko sortetxera. Eraikuntza hau altxatu ahal izateko, Juan Araoz Uriarte arrasatearrak Mexico-n pilatutako urreak eralgi behar izan zituzten, Esteban Garibai historiagile famatuak ere fundazio hura bideratzeko parte hartu zuelarik. Garibaiek bere gorpua eliza honetan lurpera zezatela agindu zuen. Gerra aurreko argazki honetan ikus, besteak beste, Elorriorako autobus dotorea eta ferian dauden baserritarrak

Jerardo Elortza

— Fotozahar sariketa —

Noiz inauguratu zen Sebero Altube Plaza?

— Joan den asteko irabazlea —

Juanita Azkoaga, arrasatearra.
("Gerra Enea jauretzea 1973ean lurreratu zuten")

Egundoko Walk-mana
-VIGURI Bideo Klubak emana-
eskuratu nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:
Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera

VIGURIk

hilaren bukaeran

14'ko koloretako

ITT NOKIA

markako TELEBISTA BAT

zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

POSTGRADUATUENTZAKO BEKAK



ENPRESA-IHARDUERA BERRIEN BULTZATZAILEEN PRESTAKUNTZARAKO ZENTRUA

Beka programaren edukia:

*Teknika-Enpresa alor guztietan, prestakuntza

* Bere osotasunean, enpresa berri baten prestakuntza

**ZIENTZI, INJINERUTZA, EKONOMI ETA ENPRESETAKO
POSTGRADUENTZAKO DEIALDI IREKIA**

Bekaren zenbatekoa: 1.000.000 pta.
Deialdia itxiko da: 1989ko Ekainaren 27an

Interesatuak helbide honetara idatzi:

Armin Isasti

Zentruko Zuzendaria

-23 apartatua- 20.500 ARRASATE

Kurrikuluma erantsi, zeure asmoak azalduz


Zentru Bultzatzailea: ESKOLA POLITEKNIKOA. ARRASATE

LENIZ


AUTO ESKOLA

ARRASATE TA ESKORATZA.n

TEORIKARAKO



PRAKTIKARAKO



BASTIDA

1989ko Uztailaren 3tik 28ra

INFORMATIKA

*BASIC, COBOL,
PASCAL

*Sistema operatiboa

GESTIO-INFORMATIKA

*Datu-basea

*Orri-elektronikoa

*Testu-tratamendua

KONTABILITATEA

Plan orokorra

MEKANOGRAFIA

TAKIGRAFIA

ERREKUPERAZIOAK

*OHO, IEE, BBB, LH, UBI

**Ikastaroa
Uztailaren 3an hasiko da.**

**PINTOREA
MOKETA JARTZAILEA
KOMUNITATEKO FATXADAK**

JULIO GONZALEZ

Santamarina 24, / . ezk. Tfnoa: 79 89 79 ARRASATE

Berak maite nazan aldatu egin behar

EZ

dakit nola arraio maite neska hori. Zelako mutilak zaizkion laket baneki, berehala egokituko nintzaioke. Oraingoz nobela eta poemak leitzeari ekin diot, zertxobait ikasi asmoz; amodio nobela eta poemak. Bainan ez dut uste horrek gehiegi aldatuko

nauenik. Eta aldatu gabe ez dago maitatzen hasterik. Berak primerako mutila merezi du; eta, egia esan, niri ere merezi dit primerako mutila izaten saiatzeak.

Lehengoan, ekologia gora eta behera genekarrela, berak bedatseko pagoak zituela maite bota zuen, justu ni pinudietan gustora ibiltzen naizela esatera nindoanean. Eskerrak betarik izan ez nuela. Isilik geratu nintzen. Beste batek, arbola autoktonoei buruzko kaikukeria andana esatearekin, irrifarretxo baikorra lora ziezaion lortu zuen. Hau bai zorte aldrebesa! Ziur gero pago-azaletan I love you idazten dituenetarikoa dela.

Ez diogu inoiz elkarri hitzegin eta nik, antzik har ez diezadaten, ez dut berari buruzko galderarik luzatzen. Badakizu, jendea azkarra da, behin enteratuz gero adio sekretua.

Eta adar jotzeekin, zailagoa aldatzea! Hasi aurretik eman beharko nioke bukaera nire maitasunari.

Atsegin izan dakizkikeen gauza eta gaien zerrenda osatzen ari naiz, bestalde. Amorrua ematen dit berak nire esfortzuen berri ez izateak, nire buruhauste guztiak hutsaren hurrego gertatzeak.

Egia esan, kosta egiten zait nire barne eta kanpo aldaketen froga dagoeneko nabarmenak ezkatzea. Nik uste, jendea aurki jabetuko da nozitu dudana. Emaitzak denon begibistako bilakatuko dira eta ez dut besterik behar izango maitasunari hasiera emateko. Oraingoz oheratzean eta mutil batengandik espero daitezkeen horietan pentsatzen dut usu. Tira, uneoro. Ez da harritzekoa, maitasunarekin lotuta dihoana izaki. Gainera, burutik pasatu zaizkidanen arabera (berriro diot ez direla, zikintzat hartu ohi diren pentsamenduak, harritzeko modukoak), izugarri maitatuko dut neska.

Instant latzen ondoren, ostera, poza ere badator, neska liluragarri hori geroa dela susmatzea, alegia. Etorkizun horretan azukrerik gabeko txikleekin batera ikus nazakezu, barnean pago usaina duen kotxe metalizatuekin, negu guante eta uda bizikleta artean, sonbreiruren bat ere apika. Beste mutilek so lizunez josiko dutenerako jelsia ere prestatu eta entsaiatu dut. Poza beraz, kodiziatua erdiestearen poza, sasi-pagozaleen gainetik.

Zerbaitek urduritzen nau, ordea, lipar batez zeharo urduritu ere, horrenbeste itxaropen artean: bera ere ez ote den aldatzen hasi, ni maitatzekotan edo. Aldaketa honek, jakina, bestela, nik maitatuko ez nukeen bezala utziko ninduke. Ezin dezaket, bada, maite nazan onartu.

Txema Abarrategi

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

**Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaletiko alergia**

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE



■ **Irratia aztergai:** ETBren ikerketa eta komunikazio sailak CINDES enpresarekin batera, oso datu jakingarriak eman ditu Euskal Elkarte Autonomoko irratitari buruz. Hona hemen, laburbilduz, interresgarrienak.

*Hiru probintzietako biztanlegoaren %61,9ak egunero entzuten du irratia.

*%17ak inoiz ez duela entzuten dio.

*Entzule gehienak 38 eta 47 urtekoen artean daude.

*Jendetza-orduak goizeko eta gaueko hamaikak dira.

*Telebistaren ikuslegoa gehitzen den orduetan irratietako entzulegoa jaitsi egiten da, eta alderantziz.

*FMa gora egiten ari da, OM beherantz doan neurrian.

*Estaturen baino gehiago entzuten dugu irratia.

Eta noiz entzuten dugu, ba, irratia? Datu hauen arabera,

%35,2ak etxeko lanak egin bitartean.

%21,5ak atsedendietan.

%18an ohean.

%9ak berebilean.

■ **Elhuyar telebistan:** Ikusi duzue Elhuyar zientzi aldizkariokoei ETBrako egin duten iragarkia? Irudi azkar eta ikusgarriz osatutako iragarki polita. Aldizkariak hilerok eskaintzen digunaren ispilu erakargarria. Jakin izan dugunez, eurek egin dute iragarkia, kostuak ikaragarri merketuz. Lan bikaina.

■ **Estrasburgo ezagutzuz:** Ez dakit konturatu zareten, baina eurokanpaina dela eta, ETBko Gaur Egun albistegietakoei egunero tartetxo bat Estrasburgoko Legebiltzarreko gorabeherari eskaintzen diete. Tartean ez da ezer berezirik egon, bai ostera, gustora ikusitako irudi eta informazio bitxiak, eztabaida arraroak, etab. Kanpaina astun hau arintzeko irudi freskagarriak.

■ **Zezenak ez, zezenak bai, ezbaian:** Laburra egin zitzaidan joan den ostegunean Ezbaian saioak zezenketei eskaini zien programa. Hizlariak ondo aukeratuak izan ziren eta joko ederra eman zuten. Iñaki Azkune eta Joxe Mari Rekondo behialako toreatzaile igeldotarra alde batean, aldekoen alboan, eta Joseba Zulaika antropologoa eta Jon Urrujulegi idazlea, eta horregatik denbora faltan egon ziren esatekoak behar bezala azaltzen eta eztabaidatzeko. Karmelo Somoza moderatzaileak ondo toreatu zituen aurkakoak, ikuslegoaren txaloak jasoz.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Farenheit,** ostiralean, 22,30etan. UEUri buruzko erreportaia; Donostiako hiriak aurkeztutako lau proiektu "arte in leku"rako; Xabier Oteroren argazki-erakusketa Iruñean; Bilboko Arte Ederretako Museoan, "hiru poema, hiru pintore". Estudioan Eduardo Gil Vera idazlea, "Xalbador Saria"ren irabazlea izango da.

■ **Kirolak,** 22,00etan ETB-2an, euskaraz. Errege Koparen final-laurdenak, Irunetik: Bidasoa - Caja Madrid. Komentarioak: Mikel Olazabal; 23,30etan, ETB-1ean, diferituan, Oronozeko Herri Kirolak-eko jaialdiaren laburpena; besteak beste, Mindegia, Saralegi eta Perurena-ren partaidetzarekin.

■ **"Hollywood edo ezer"** ("Hollywood or bust", 1956). Zuzendaria: Frank Tashlin; Antzesleak: Dean Martin, Jerry Lewis, Anita Ekberg. Sariketa baten irabazleak, bata buruarina bestea trankarti hutsa, Hollywooderantz abiatzen dira Anita Ekberg ezagutzeko asmoz. Gora behera asko jazo ondoren, biak haien ametsak betetzen dituzte.

bideoak



Gremlins: Hauxe duzue Jose Dante-ren filma benetan ikusgarria. Steven Spielberg-en laguntza izan zuen filma hau egiterakoan, E.T.ren zuzendaria Gremlisen ekoizlea izan bait zen, eta elkarlan horren emaitza atsegingarria izan da oso. Izan ere, aipatu E.T. txintxo eta maitagarriaren ostean, hemen datorkigu Gremlins bihurri, azkar, argi, xeble eta barrengarriak.

Jarri lasai telebistaren aurrean eta on dagizuela!

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

								A						
										A				
					T									
Z	B	S	A	N	E	A	O	A	D	I	N	T	O	
B	U	T	L	B	A	A			I	A	K	U	T	
A	A		I	I	I	M		T	A		K	A	E	H
I	M	T	A	T	S	S	I	R	D	O	A	O		
	T	A	U		Z	S	K	E	A	T	R	I	K	R

Zutabeak jausi dira

Mokordo

Beheko zutabeak goiko koadroan behar bezala antolatuz, Joseba Sarrionandia euskal idazlearen aipamen bat agertuko zaizu.


(Soluzioak 19. orrialdean)

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Aldaketa hori oso ondo etorri zaizu baina oraindik ez duzu garrantzitsuena ikutu. Hasi-takoarekin jarraitu, emaitzak ezin hobeak izango dira eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Zure inguruko gauza ugari berritzen ari zara, baina zure baitako kezkek desagertarazteko ez duzu gauza handirik egiten. Saiatu beharko zenuke.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Norbaitek zugan daukan konfidantza demonstratu dizu baina mantentzea ez zaizu erreza gertatuko. Gauza askotan sartuta zaudete eta egunak 24 ordu besterik ez ditu.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Etxekeekin gustora aurkituko zara baina horrek ez zaitu etxean mantenduko. Zerbaiten bila zabiltza eta lortzea ez zaizu zaila gertatuko. Astebukaerak jota utziko zaitu.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Orain arte zure bizitza ilundu duten hodeiak argituz doaz, udara osoan zeru garbi batez gozatzeko aukera izango duzularik. Eman zure buruari behar beste denbora, izar-erak alde dituzu eta.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Urte osoan bilatzen ibili zarena bapatean eta abisatu gabe agertuko da. Ongi etorria emateko prest egotea komeni zaizu, horretarako aurreiritziren bat gainditu beharko zenukeelarik.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Aste honetan ez zenuke erabaki garrantzitsurik hartu beharko, hurrengoan dena ezberdina ikusiko duzu eta. Norbait zure atentzioa deitzeko ahaleginak egiten ari da. Ez egin kasurik.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Kanpotik berri onak izango dituzu baina zure osasuna ez da hain ona izango. Hala ere, ez jo medikuarengana, osasun arazo hori fisikoa ez da eta.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Zure gorputzari martxa gehiago ematen ez badiozu, zahartzaroan aurkituko duzu zure burua. Bizitza laburregia da arazo luzez arduratzeko.



CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Itota sentitzen zara, eguneroko monotoniari harrapatuta zauzka eta. Toki zabaletara irtetea ondo letorkizuke, bide batez zure osasuna apur bat gehiago zaintzen baduzu, hobeto.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Azken aste hauetako bizimoduak desorekatu egin zaitu, momentu honetan nahigabeturik zaudelarik. Dena den, betebeharrekin bukatu bezain laster primeran sentituko zara.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Bizi zaren mundua nahiko berezia denez, jendearekiko harremanak ere ez dira oso arruntak. Ez pentsatu arrazoia beti zurekin dagoenik eta entzun besteei.

Deba Garaiko zinema-egoera herriz herri

ARRASATE

Amaia

Udalarena da.
1200 jarleku
Ostegunetan filmeak eta
aste buruetan antzerki, jaialdi,
kantaldi, etabar...

Alai

Entitate pribatua da.
800en bat jarleku.
Azteazkenetan izan ezik,
egunero.

BERGARA

Irala

Entitate pribatu
Une honetan itxita dago.

Novedades

Entitate pribatua.
480 jarleku
Egunero izan ezik.

Compañía de Maria

Entitate pribatua.
692 jarleku.

Mendiko filmeak, kontzer-
tuak...

ARETXABALETA

Zaraia

Udalarena.
511 jarleku.
Domekero.

ANTZUOLA

Zinea

Guraso-Elkartearena, beraz, pri-
batua. Une honetan 25 urterara
ko Udalari utzita.
200-300 jarleku
Duela 3-4 urte erreformatua.

ESKORIATZA

Zinema

Entitate pribatua (Apezpikutza
rena). Une honetan Eceiza
Eskolako Guraso-Elkarteara
darama (Udalaren laguntza dute
funtzionamendu-gastuetarako).
200 jarleku

Asteburuetan domekero.

ELGETA

Une honetan ez dago ezer, baina
eskola berriak egindakoa,
aretoa egingo dute.

GATZAGA

Kultur Etxea

Bideo-pantaila dute. Filmeak
proiektatzeko kanpotik ekartzen
dute makineria.
50-60 jarleku.

OÑATI

Santa Ana Antzokia

Udalarena. Antzokia eta auditio-
ruma.
350-400 jarleku
Asteburuetan zine-emanki
zunak.
Bestelakoak-jaialdiak,
kantaldiak, kontzertuak, antzer-
kiak. Ostegunetan Cine Club.

**Zure Botoa Carlos Garaikoetxeari
EUROPAKO HAUTAGAIBURUA**



Indarrezko Botoa

